


# elkar

UDABERRIA 2024
75. ZENBAKIA

www.elkar.eus


# RUPER ORDORIKA

*Bakarka II*,
kantuak gitarraren soiltasun ederrean

+

## EDUARDO MENDOZA

*Tres enigmas para la organización*, una afilada novela de detectives

## HARRY POTTER berriro dator plazara

gazteak eta ez hain gazteak sorgintzeko prest

## IZEN PROPIOAK:

Laura Azcona · Joseba Sarrionandia · Lide Hernando · Jon Arretxe · Bea Salaberri · Iñaki Sagredo · Josean Morlesin
Antton Olariaga · Irati Jimenez · Xabier Madariaga · Gari · Joxean Agirre · Ernesto Prat · Joxe Manuel Odriozola

8435226192529




JOSEAN MORLESIN



# Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
elkar_taldea
flickr elkartaldea
elkarTaldea
postdata.elkar.eus

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad Uribe 14 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33





# RUPER ORDORIKA




**BAKARKA II**
Ruper Ordorika
ELKAR

**Berriro bakarka dator Ruper Ordorika. Bere gitarraren soiltasun ederrenari bigarrenez egin dio keinu *Bakarka II* diskoarekin. Kantu zaharrak berrartu eta eremurik intimoenera daramatza, bere anaia Jonanekin grabatu duen azken lan honetan.**

Ahots ezti eta era berean urratu batez janzten ditu **Ruper Ordorikak** (Oñati, 1956) bere kantuak. Erregistro desberdinetan hurreratu izan da bere zaleengana, gehientsuenetan talde "armatu" batez inguratuta. Baina hau ez da kasu bera. 2018an *Bakarka* diskoa kaleratu zuen, gitarra huts batek sortzen duen edertasun bideari helduta. Gitarra eta ahotsa. Ruperrekin bakarka egoteko aukera itzela izan zen hura. Eta, orain, berriro ere, iraganetik kantu sorta bat erreskatatzen aritu da musikari oñatiarra. Hamabi abestitako zerrenda osatu du, bere ibilbideko mugarrietara itzuliz, berrogei urteko lanari atzera begirako gozo eta liluratua eskainita.

Kantu leun bat da Ruper, eta halaxe helarazten dio entzuleari ere. Egileari berari berezia zaio lan hau, *Bakarka II* gisa kaleratuko dena. Izan ere, bere anaia Jonanekin (abuztuan hil zen) grabatutako azken diskoa baita. Azkarateko estudioetan, presarik gabe eta bi anaien konplizitatearekin ondu da geruzarik intimoenera garamatzan lan hau. Eta formatu bikoitzean kaleratu da, gai-




No hagas montañas de granos de arena

(y todo son granos de arena)

El nuevo libro de

Rafael Santandreu



Penguin Random House Grupo Editorial

www.penguinlibros.com
@PenguinLibros

Grijalbo

Disponible audiolibro y ebook

nera. Batetik, *Bakarka II* diskoa CD formatuan eta, bestetik, bakar-ekintza honetako bi aleak, LP bikoitz gisa.

***Bakarka* diskoaren jarraipena dugu hau, beste hamabi kanturekin. Zergatik bigarren asmo hau?**
Duela urte batzuk bakarkako emanaldietarako kantuak lantzen hasi nintzen. Saio asko eman eta ondorioz kantuak birmoldatu ditut. Hortik heldu da gitarra eta ahots hutsez grabatutako bigarren sorta hau.

**Nora zarama zure kantutegiko abestien hautaketa bat egin eta gitarra huts batekin kantatzeak?**
Ba, abiapuntura naramala esango nuke. Kantuak bakarbakarrik ontzen ditut hasteko, nere kasa. Gero, gehienetan, musikariekin aritzen naiz beste esparru baten bila. Baina hastapenean bakarka heltzen dira, bai.

**Zer eman dizu minimalismo horrek?**
Aspaldiko nahia nuen halakoetan sartzea. Nik izugarri maite dut bakarka entzun ahal izatea normalean talde giro batean ezagutu ditudan kantugileak. Aspaldian gogoan eduki arren, denbora luzea behar izan dut gitarra soilez nahi bezala aritzeko. Asko destilatu behar, geruza bat baino gehiago kendu behar muinera heltzeko! Biziki maite dut egitekizun hau eta, bere horretan, asko betetzen nau.

**Artifiziorik gabeko diskoa izan arren, edertasunaren bilaketa erabatekoa dela esango nuke.**
Pitin bat haruntzago joan beharra izaten da, bai...Beharbada *"edertasunaren irudipenak zauritutakoak"* izango gara, poetak esan zuenez...

**Badirudi, diskoa entzuterakoan, Ruper ondoko besaulkian daukazula kantuan.**
Nik maite ditudan bakarkako disko askoren segidan heldu da hurbiltasun hori, grabazio baliabide guztiak erabilita grabaketa sentsazioa bera inon ez agertzeko. Disko biak oso zainduak dira bere soilean, soinuari erreparatuz eta material bikainarekin grabatuak.

**Zalerik fidelenei egindako opari gisako bat dela esan daiteke?**
Nahi nuke zaleentzako oparia izatea niretzako oparia den bezainbat.



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JUANTXO EGAÑA

> ***"Norberak kantua behar bezala adieraztea lortuz gero, beti agertuko da horrekin bat egingo duen entzulerik"***

**Halako bilduma minimalista eta intimoa egiteak, zure karrera profesionalean zein unetan kokatzen zaitu, 40 urteko ibilbidea osatu duzunean?**
Asko ibili naiz bakarkako honetara heltzeko eta dagoeneko hurrengo pausoari begiratzeko gogoa ematen dit. Gehienetan talde elektrikoan jotzen ohi ditugu kantu hauetarik batzuk. Bakarka, berriz, beste bide batzuetatik abiatzen naiz kantuak eraldatzeko moduaren bila. Aldaerak sortu, akustikarekin ala elektrikarekin. Beste kantarien bertsio bat edo beste sartzen ohi dut, baita ere.

**Mundu-gauza-bizipen ustez txikietan izan du jatorria zure musikak, baina kontatzen duten istorioek oihartzun itzela dute. Zer jasotzen du entzuleak zure kantuen bitartez? Edo zer da helarazi nahi duzuna?**
Entzuleak zer jasotzen duen jakingo banu! Nire baitan gauzak batera erakartzea da gakoa. Norberak kantua behar bezala adieraztea lortuz gero, beti agertuko da horrekin bat egingo duen entzulerik. Hori bai, entzulerik gabe deus ez da, musika ez da ontzen.

**Kantu zaharrak perspektiba beretik abesten dira sortu zirenetik urte mordoa pasa denean?**
Uste dut errazago egiten zaidala aspaldiko kantuak bermoldatzea azken diskoetakoak baino... Badirudi distantziak mira aldatzen dizula, nonbait.

**Azkaraten grabatu eta nahastu zen lan hau, aurrekoa bezala. Anaiarekin egindako azken lana dela uste dut. Pentsatzen dut zeresan berezia izango duela zuretzat.**
Bai, oso berezia. Jonan nire disko gehienen parte handia izan da eta bakarkako hauetan gehiago, nahiz bera pop zalea izan. Berarekin erabateko konfiantza eduki dut. Kantu hauek poliki-poliki grabatu genituen Azkarateko bere estudio ttikian, biok bakarrik. Gaur bi pieza eta hurrengo hilabetean hiru, eta horrela, abesti pila batetik hautaketa eginda. Egunero gogoratzen naiz berarekin.

**Formatuak ere badu zera berezi bat. *Bakarka* bi CD formatuan kaleratuko da, baina 2LP moduan ere aterako da, *Bakarka*ko kantuak eta *Bakarka II*-koak bateratuz.**
L.P. bikoitza argitaratzea diskoetxearen erabaki ausarta izan da. Diskogintzaren sasoi nahasi hauetan... Ederra da!

**ARIANE KAMIO**
Kazetaria



*Profila* MAITE IDIRIN

# AMAREN ETXEA



**XABIER MADARIAGA IDIRIN**
Kazetaria

*Ahizpatasuna* diskoa, azaleko bere bost emakumeekin –sardinerak zirela uste dut– betidanik egon da gure etxean. Haurtzaroak grabatuta uzten dizun irudi horietako bat da niretzako LP hori. "**Maite Idirin**", berak merezi duen bezala, letra larriz eta dotorez idatzita... Amaren lehengusina izanda, Maiteren ibilbidea gertutik jarraitu dugu gurean. Miresmen handiz kontatzen dira etxean Maiteren lehenengo kontzertu haiek **Atahualpa Yupanqui**ren letrekin; Maitek diktaduraren erruz deserrian emandako urteak askotan gogoratu izan ditugu, baita Parisko kaleetan abesten eman zituen egunak ere; eta gerora, euskalgintzaren alde egindakoak, **Jokin** bere bidelagun banaezinarekin batera.

Harrotasun puntu batekin defendatu izan badugu beti amaren etxea, "Idirin" abizena, Maiteri esker ere izan da. Norbaiti abizena ezaguna egiten zaion bakoitzean, berehala erantzuten diogu: "Ama Maite Idirinen lehengusina da". Eta pertsona horrek



ARGAZKIA: DANI BLANCO

Maite ezagutzen duela baieztatuz gero, euskal kulturarekiko sintonia puntu batean gaudela sentitzen dugu. Tokatu zaigu ere seme-alabak ikastolatik etxera itzultzea euskal emakume erreferenteei buruz galdezka. Gure txikien zerrendetan lehenengo izena zein izaten den imajinatu dezakezue.

Denborarekin konturatu gara, ordea, etxean aldarean daukagun Maite horrek gizarte mailan ez duela nahikoa errekonozimendu jaso. Euskal kantagintza berriaren aitzindari izateko, bere izena ez da nahikoa aipatua izan. **Pedro Mari Goikoetxea** lankideak ETB1en duela hamar urte egin zion *6 argazkitan* biografia bikaina da gogoratzen dudan azkenetarikoa. Sentsazioa gazi-gozoa da, Maiteren izenak jaso ez duen aitormena bere aldarrikapenek, berriz, bai, jaso dutelako. Duela 45 urte Maite Idirinek aldarrikatzen zuen ahizpatasun hura –"Emakume, ahizpatasunaren haizea dun. Etxetik irten hadi, bere gutuna entzun"– inoiz baino ozenago errebindikatzen da egun gure artean.

Eskerrik asko, Maite.



**IÑAKI SAGREDO**
Escritor

*Proposamena*

# USTED NECESITA ELABORAR EL LUTO

Esta frase, directa y concisa, atraviesa todas las páginas de *Sostiene Pereira*, la obra cumbre del escritor italiano **Antonio Tabucchi**. Pereira, un periodista cultural, obeso, de mediana edad, que da muestras de llevar una vida simplísima y completamente rutinaria, comienza a sentir en su interior una fuerza, una conciencia política, a raíz, por un lado, de la dictadura salazariana y, por otro, de la influencia de Monteiro Rosi y su novia Marta, jóvenes de izquierdas cuyas agitadas vidas chocan con la repetitiva de Pereira. El no me interesa lo político da paso a la voluntad de ayudar y mostrar lo que ocurre en esa Portugal de los años treinta. La necesidad de elaborar el luto, de decir adiós a una vida pasada, se intercala con una serie de reflexiones sobre la literatura y la filosofía, todas ellas bañadas, por supuesto, con el estilo fresco y genial del autor. El anclaje para con el pasado se muestra, asimismo, en su idea de la cultura; nuestro protagonista se centra en escritores desaparecidos o fallecidos, sin importancia especial en su contexto, contraponiéndose a las necrológicas del nuevo colaborador Monteiro Rosi. Los elementos culturales se mezclan con otros más mundanos –pero no menos emocionantes–, como las conversaciones con el doctor Cardoso o su peculiar relación con el jefe, además de las tiernas charlas entre Pereira y el retrato de su mujer, siempre puesto cara arriba en la maleta "para que respire bien".

Si algo cabe destacar de esta novela es el personaje de Pereira, quien "visitó" al autor en 1992 para que pudiera ser creado y marcar un antes y un después en la literatura. **Tabucchi**, en su maestría, consigue el equilibrio entre el minimalismo sutil y las hondas reflexiones bajo el desarrollo creciente de su protagonista, dejando una amplia huella en todos los lectores.




**SOSTIENE PEREIRA**
Antonio Tabucchi
ANAGRAMA

BARREN-BARRENEAN

# AZALA ETA MAMIA, MAMIA ETA AZALA



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Askotan esaten diren gauzak gauza normalak iruditzen zaizkigunez, badira literaturaren arloan normal-normal esaten diren eta hain normalak ez diren gauza asko. Askotan hitz egiten dugu, adibidez, forma eta edukiari buruz bi gauza desberdin balira bezala, eta bien artean nolabaiteko hierarkia bat balego bezala. Idazle batzuk esaten dutena egia bada, norberak hautatu egin behar du zer nahiago duen, edukia –zerbait kontatzea– edo forma –kontatzeko modua– eta ez dakit konturatu zareten baina formaren aldekoak izaten dira honekin matraka handiena ematen dutenak. Beste idazleengandik bereizi egiten dituen gauza bitxi eta ezohiko bat egiten ariko balira bezala hitz egiten dutenak, gauza berri eta orijinal bat, akaso mundu guztiak ulertuko ez duena eta horregatik, hain zuzen, haien ariketaren balio artistikoaren maila emango duena.

Harritu egiten naute. Haserretu ere bai, batzuetan, baina beste ezeren gainetik harritu egiten naute. Idazleak direlako eta idaztea zer den badakitelako eta jakin behar luketelako ezin dela *ezer* idatzi formari dagozkion erabakiak hartu gabe. Idazleak jakin nahi badu *nola* idatzi, *zer* ari den idazten jakin behar du, eta *zer* kontatu nahi duen erabakitzen duenean pentsatu behar du *nola* kontatuko duen. Literatura edukiaren edo formaren arteko bataila bat balitz, hilda bukatuko luke, **Rafael Reig**en *Manual de literatura para caníbales* (Debate, 2006) fenomenalaren bukaeran bezala.

Imajinatu dezagun **Axular**, formaren ikuspuntutik inoiz izan dugun idazlerik garaiena, nire ustez. Zer egin nahi zuen *Gero* idatzi zuenean? Euskaldunak infernutik libratzeko liburu bat, euskaldun guztiak *konbentzitzeko* moduko liburu bat. Baina *nola* idatzi euskaldun guztientzat euskara baturik gabe? Ideia bakoitza euskalki desberdinetako hitzekin errepikatuz. Horregatik idazten du “ea arima izitua bihotz har ezazu, esportza zaitezi, etzaitezila errenda, eztezazula gal esperantza”. Egin nahi duenak agintzen dio idazleari *nola* egin behar duen.

Intrigazko eleberri batean, adibidez, lekukoen idatzizko testigantzak badira aspaldi gertatu zena ezagutzeko modu bakarra, idazleak lekuko bakoitzaren ahotsa *nola* egin erabaki beharko du, **Andoni Agirrezabalak** *Etxe berdean* (Erein, 2022) egiten duen bezala. Behar badugu ikerketa bat edo batzuk burutuko dituen protagonista bat, euskalduna, atsegina, sinesgarria, eta morala, errazagoa izango da kontua peritua bada eta ez polizia, **Eneko Barberena**ren *Suak erreko ez balu* eleberriko Ainhoa Sanz bezala (Txalaparta, 2023). Zer eta nola gauza berbera direla esan nahi dut. Hemen inor ez dagoela *formaren* kontra.

Are gehiago esango nuke, eta esango nieke, bereziki, idazteko gogoa duten guztiei. Idazten ikasteko ez dago zerbait esaten saiatzea baino metodo hoberik. Zerbait esateko, ezinbestean hartu beharko ditugu erabaki formalak eta formari buruz asko ikasiko dugu. Ez badugu ezer kontatzen, zeren arabera erabakiko dugu *nola* idatzi? Kontuz. Ze, hasiko gara *esaldiak* egiten. Eta beharbada esaldi sofistikatuak izango dira eta deigarriak eta arraroak eta norbaitek –beharbada guk geuk– pentsatuko du zerbait egin dugula, baina inork ez du jakingo *zer* egin dugun eta irakurleak liburuaren bukaerara iristen direnean –iristen badira– ez dira egongo formaren edertasunak horditura, formaren *arrarotasunak* mareatuta baino.

Ez dezagun ahaztu idazteko modurik onena ondo idaztea dela eta ondo idaztea izan daitekeela hitz klaruak eta zelaiak erabiltzea, gauzak zuzen eta garden esatea. “Nire aitaren etxea defendituko dut” idatzi zuen **Gabriel Arestik** eta “beti da gaua ilun eta beldurgarria” **Txomin Agirrek** eta hobetu daitezke esaldi horiek? Hurrengo orduetan fusilatu behar zutela jakinik “goiz eder honetan erail behar nabe” idatzi zuen **Lauaxetak** eta idatzi daiteke hori baino hobeto?

> *“Isilik geratzeak ere esanahia du, eta, hemen, palindromo bakoitza oihu baten modukoa da”*



ARGAZKIA: JOSE GOITIA

# JOSEBA SARRIONANDIA

**Markos Gimeno palindromistaren obra oinarri, *Markos Gimenoren 101 letrakartel* liburua eman du Pamielak. Joseba Sarrionandiak (Iurreta, 1958) idatzi ditu libururako testuak, Gimenoren bizitzaren kontakizun bat tartean, haren espiritua aldarrikatu eta hitzak “zentzuz kargatzeko”, jostalari.**




**MARKOS GIMENOREN 101 LETRAKARTEL**
Joseba Sarrionandia
PAMIELA

**Liburuak ederki bistaratzen du palindromoari arrazoiz deitzen zaiola *aztihitza*. Aurrez, zuk zer zenekien aztikeria mota honi buruz?**
Esate baterako, **Ebaristo Bustintza *Kirikiño***-k palindromo lehiaketa bat antolatu zuela 1923an, *Euzkadi*-ren euskarazko orrian, Miguel Primo de Riverak estatu kolpea jo eta hizkuntza periferikoak debekatu zituenean.

**Zer moduzko ariketa izan zaizu Gimenoren biografia bat idaztea?**
Markosen lana apenas ezagutzen nuen. Ez nekielako, ez nekielako hasi nintzen ikertzen eta liburua osatzen. Interesgarria izan da bere idazkera esperimentalean murgiltzea, interesgarria Markosen bizimodu pertsonala eta gaixotasuna ezagutzea. Baina interesgarriena, Ermuko eta Euskal Herriko azken berrogei urteotako historiara hurbiltzea.

**Liburuan aitortu duzunez, «palindromeroa bere burua ulertarazteko itzuli da lan honetan».**
Bai, Markosen ariketak esanahirik gabekotzat hartu dira, palindromerokeriatzat. Palindromoak, hitz asmaketak, kalanburrak eta halako joko linguistikoak zentzugabetzat hartzen dira, baina gure liburu honen abiapuntuan dagoen ideia da kontestu linguistiko, literario, eta politiko emanez gero denak duela esanahia. Isilik geratzeak ere esanahia du, eta, hemen, palindromo bakoitza oihu baten modukoa da.

**Askotariko testuak idatzi dituzu palindromoei laguntzeko. Bazenuen irizpiderik?**
Markosen espiritu sortzailearekin kolaboratu dut, Markosen gogo kolektiboarekin. Markosen lagunek egin dituzte kartelak, eta oso gustura ibili gara Humphrey Bogart, Flannery O’Connor, Koldo Miscelanea eta enparauok, auzolanean, autoretzaren gailurra den anonimotasun popularraren bila.

**Umoreak zer toki zuen Gimenoren obran? Eta zein, ondorioz, liburu honetan?**
Markosen espiritua umore sortzailearena da. Min sakonaren indarra dauka, gainera: “Gorroto dut bipolarra izatea, munduko gauzarik ederrena da”. Min horrek indartzen du umorea: komikoak barre eginaraziko dizu; benetako umoristak, pentsarazi ere bai.

**Zergatik aldarrikatu Gimenoren obra?**
Ortografiarik eta literaturarik gabe mendeak egin ondoren, euskaldunok badugu ja gaur egun hizkuntza batu bat eta literatura bat ondo egina. Beti izan nahi izan dugu normalak, eta gaur egun badugu ja norma bat nahiko txukuna korrektoak izateko eta normalak sentitzeko. Gure egoera linguistiko-literarioa normaltasunaren ikuspegitik begiratu daiteke, baina Markosen intuizioek beste ikuspegi batera eramaten gaituzte, anormaltasunarenera. Gure egoera ez da normala, ez hizkuntzan, ez literaturan, ez beste alorretan. Politikan ere ez. Norma erredukzio bat da, eta arautik kanpora asko dago egiteko.

**Nolakoa behar luke liburu honen irakurketak?**
Badaude liburu batzuk irakurterrazak eta literalak. Liburu honek bestelako joko bat proposatzen dio irakurleari, Markosen esaera batean laburbiltzen dena: «Leer es iracurrar». Lan sortzaile bat proposatzen zaio irakurleari. Beste lan batzuetan, plusbalia ugazabarentzat izaten da. Irakurketa lan honetan, ostera, langileak jasotzen ditu onura guztiak: hitzak bizirik daudela sentitzea, komunitate ireki eta umoretsuko partaidetza, eta bizi garen munduari buruzko hausnarketak.

**UXUE REY GORRAIZ**
Kazetaria






FOTOGRAFÍA: IVAN GIMÉNEZ – SEIX BARRAL

***Tres enigmas para la organización* (Seix Barral, 2024) es una afilada novela de detectives, en la que Eduardo Mendoza ha vertido lo mejor que puede entregarle al género: sátira social, comedia de enredo, mucha intriga y grandes dosis de humor. En ella, nueve estrafalarios detectives hacen lo imposible para resolver tres casos de misterio sin traicionar a la organización para la que trabajan, una anacrónica entidad que sobrevive clandestinamente en los límites de la ley. El escenario es la asfixiada Barcelona de 2022, que, pese al transcurrir de los tiempos, sigue desplegando todos sus prodigios.**

**Una vez le escuché decir que "el que practica el humor está condenado a ser producto de proximidad", por la dificultad que entraña su traducción y su traslado a otras culturas. ¿Por qué le compensa escribir historias de humor?**
No escribo pensando en el mercado donde venderé el producto. Bastante me cuesta hilvanar una historia. El humor tiene cosas muy buenas, pero el inconveniente de quedar circunscrito a su entorno cultural. Y lingüístico. Para empezar, es muy difícil de traducir. Los nombres de los personajes, por ejemplo: ¿hay que dejarlos como están y aceptar que pierdan la gracia o buscarles un nombre que funcione igual en el otro idioma? Y así con todo. Bueno, no hay que ser radical. Siempre queda algo y un público conecta a través de la barrera, pero no es comparable al drama, que, por desgracia, nos afecta a todos igual.

**¿Cuánto hay de juego en su hacer literario? ¿Se divierte mientras escribe?**
El hacer literario siempre es un juego, entre el escritor y el lector. A veces es un juego fácil; a veces, no. El humor es un juego doble: el juego de la ficción y el del humor. ¿Me divierto? Sí, claro. No porque me ría de mis propios chistes, sino porque me divierte jugar.




**TRES ENIGMAS PARA LA ORGANIZACIÓN**
Eduardo Mendoza
SEIX BARRAL

**También ha dicho en alguna ocasión que se considera un hombre bastante aburrido.**
No sé si soy aburrido para los demás. Para mí, sí. Por eso si estoy a solas conmigo mismo, me invento historias divertidas. Una vez puesto en marcha, lo difícil es parar.

**¿Hasta qué punto cree que los libros deberían concienciar o hacer pensar a los lectores?**
Un libro en concreto, de ningún modo. Leer contribuye a formar juicios más complejos, a veces contradictorios, alejados de la simplificación y el maniqueísmo. Pero un libro no ha de ser un sermón ni una diatriba.

**Y, ¿qué lugar ocupa el entretenimiento en todo esto?**
El entretenimiento es esencial. La comida es un alimento, pero ha de ser apetitosa. Eso no quiere decir que un libro tenga que ser ligero o fácil. Hay libros complicados, incluso pesadísimos, que compensan el esfuerzo. Hacer cosas difíciles o con esfuerzo también es entretenido, como escalar montañas, o boxear.

**¿Cómo decidió hacerse escritor?**
Yo no decidí hacerme escritor. Empecé de niño, pintando monas, como hacen muchos niños. Y seguí, sin parar, evolucionando con la edad. Luego conseguí que me publicaran y luego los lectores permitieron que convirtiera la escritura en una profesión. Así de sencillo.

**TERESA SALA**
Periodista

**La entrevista completa: https://labur.eus/eduardo**






ARGAZKIA: TXALAPARTA

> “Xuxurlek ere memoria kolektiboa osatzen dute”




**MESFIDA ZAITEZ**
Bea Salaberri
TXALAPARTA

**Nola kontatu lau haizetara, gure herrian, hamarkadatan, ilunpetan xuxurlatu istorioak? Bea Salaberri (Donamartiri, 1979) idazle baionesak, Laurendia protagonistaren esku utzi du misio delikatu horren ardura haren bigarren eleberrian. Baxe-Nafarroatik Baionara, emazte gaztearen ibilbideak lagunduko gaitu ETAri buruz, albisteetan agertzen ez ziren itzaleko militanteen sarea infiltratzen. Narrazioa delako, grabatu ez diren kontakizunak irudikatzeko molde librea atera da *Mesfida zaitez* eleberria.**

**Iritsi da mesfidantza alboratzeko garaia?**
Mesfidatzeko garaia ez dakit pasa denez, baina uste dut iritsi dela nolazpait, urteetan herri huntan isildutako gai batzuen kontatzeko garaia. *Mesfida zaitez* eleberrian, emazteen istorio bat plazaratu nahi izan dut, beste eleberri edo saiakeratan guti ikusi izan dudana, ETAren laguntzaileen figurarena alegia. Anitzetan emazteak izan dira ezkutuko lan horietan aritu direnak eta lekukotasun guti dira gaiaz, ohiko klixe arruntetatik at behintzat. Guti entzun da borroka horretan engaiatzeko zergatiaz, nola bizi izan duten hori, zer nolako bizi modua eduki duten eta abar. Ez da epopeia handirik liburuan, emazte horien engaiamenduaren arrazoiak eta militantzia nola bizi izan duten egunerokotasunean tratatu nahi izan dut Laurendiaren bizitza kontatzearekin.

**Laurendiren istorioak zenbat du fikziotik eta zenbat errealitatetik?**
Laurendia Garazi aldeko 20 urteko neska gazte bat da eta Baionara bizitzera heltzen denean, bere kezkak, zailtasunak ditu bizitzeko, ikasketak ordaintzeko, etorkizunaz erabakiak hartzeko. Lapurdira, 1990. hamarkadaren bukaeran iristen da, Baiona Txikian giro militantea bor-bor dabilenean. Hor mugimendu ezberdinetan engaiatzen da, eta ETA kideen kukutzeko sarea ere ezagutzen du. Garaiari doakionez, 1995etik 2016a arte doan testuinguruan gertatzen da liburua, alegia ETAren desegitea eta Luhusoko armagabetzea gertatu aitzin. Sumindura handiko garai horietaz, lekukotasunak badira, gizonezkoenak nagusiki; nik emazte batzuen testigantzak nahi nituen ere inspiratzeko eta ez da beti erreza izan gaiari heltzea eta ulertu daiteke pertsona horien mesfidantza oraindik. Horregatik fikzioa erosoagoa da halako istorioen agertzeko, askatasun handiagoa duzu.

**Pentsa daiteke Bea Salaberrik Laurendia gurutzatu zukeela ikasle garaian?**
Deus ez da autobiografikorik liburuan noski, baina egia da nik garai horiek ongi ezagutu ditudala Baionan. Biziki baliagarri izan zait testuinguruaz aritzeko bai eta lekuak deskribatzeko. Agertzen diren leku eta pertsonaia batzuk errealitatetik arantzatu ditut, musika ere hor dago. Gurutzatu ditut ere egunetik biharamunera desagertzen ziren jendeak, atxilotuak zirelako edo ihes egin behar izan zutelako, ezagutu ditut errefuxiatu iritsi berriak eta abar. Batzuk lagunak izan dira, beste batzuk ezagunak. Liburuak ere badu memoriaren lekukotasuna izateko asmoa nonbait. Orain arte egin ez diren kontaketa horiek ez dakit noizbait bilduko diren baina inportantea iruditzen zait informazio hori nonbait idatzita egotea.

**JASONE IROZ**
Kazetaria



# LAURA AZCONA

**Intriga, aventura, amores y recuerdos de infancia son los ingredientes de *El pacto de las colonias* (Plaza & Janés), la primera novela de la periodista navarra Laura Azcona. Ambientada en Hondarribia y en Nafarroa, la historia transcurre en dos tiempos, los años 80 y la actualidad, y rescata la leyenda del corsario Jean Fleury, que asaltó el tesoro de Hernán Cortés con una tripulación de marineros hondarribitarras.**



FOTOGRAFÍA: PLAZA & JANES




**EL PACTO DE LAS COLONIAS**
Laura Azcona
PLAZA & JANÉS

> *“Mi intención ha sido navegar entre la fina línea que separa realidad y ficción para que el lector crea que todo es posible”*

**¿De dónde surge esta novela y cómo ha sido su recorrido hasta ver la luz?**
Siempre me ha gustado pensar y contar historias. La chispa de esta novela surgió a raíz del festival Pamplona Negra y de un curso sobre cómo escribir género *noir*. Me picó el gusanillo y empecé a investigar algo que me sirviera de punto de partida. De pronto, me topé con la historia de Jean Fleury y su supuesto paso por Hondarribia. Me pareció algo alucinante y comencé a elaborar una trama en torno a ello. A partir de ahí, fueron varios meses de investigar y escribir. En menos de un año la tuve lista para enviarla a las editoriales. Estaba preparada para no recibir respuesta, pero en menos de una semana me contestaron de dos sellos editoriales. En el proceso me he divertido muchísimo y estoy deseando repetir la experiencia.

**Una parte transcurre en Hondarribia, donde un grupo de niños y niñas navarros acude a las colonias de verano. ¿Fuiste una de esas niñas?**
Por muy irónico que parezca, no tuve la suerte de acudir a las colonias de niña. Sí que lo hizo mi hermana mayor y, además, tenía una tía que trabajaba allí los veranos. Recuerdo perfectamente ir con mis padres a recoger a mi hermana y ver aquel imponente edificio, los larguísimos pasillos, las habitaciones… En parte es una sensación que quedó impregnada en mí y he intentado trasladar a la novela.

**Además de la intriga, pues se trata de resolver un asesinato, hay un componente de aventura, con un tesoro que tiene una base histórica.**
Así es. El tesoro en sí sería parte del botín que Hernán Cortés se trajo de las Américas. Dicen que estaba compuesto de toneladas de oro y plata, vajilla en metales preciosos, máscaras, pendientes, collares, escudos, e incluso huesos de algún animal que se cree que pudieron pertenecer a un dinosaurio. Una pieza muy especial era una esmeralda con forma de pirámide del tamaño de la palma de una mano.
**Los datos históricos se intercalan en la narración, sin que el lector sepa muchas veces qué es real y qué no. ¿Es algo buscado?**
Totalmente. Mi intención es navegar en la fina línea que separa realidad y ficción. En este sentido, el personaje de Jean Fleury es real, pero la historia de su paso por Hondarribia es una hipótesis histórica, una línea de investigación. Hay otros elementos en la novela que también juegan con documentación histórica real y con toques de ficción: la identidad del marinero que aparece en el relato como parte de la tripulación, la exposición sobre los balleneros vascos, la leyenda de Clara en el campamento… todo forma parte de un plan para intentar hacer que el lector sienta que cualquier cosa es posible.

**Además de detectives, aventuras y recuerdos de infancia, en la novela se deja entrever la marca que las relaciones de la adolescencia dejan en las personas.**
Creo que por el propio momento vital que atravesamos durante esa etapa a muchas personas puede marcarles de por vida. Las primeras veces, los cambios, las hormonas… Todo se vive con una intensidad que en ocasiones se pierde con la edad. Supongo que si de adultos viviéramos todo con tanto frenesí nuestro corazón no lo aguantaría. Aunque también sería mucho más divertido. Será que la vida nos enseña a equilibrarnos por nuestro propio bien.

**KAROLINA ALMAGIA**
Periodista



# ERNESTO PRAT URZAINKI

**Genero beltzera itzuli da Ernesto Prat Urzainki (Berriozar, 1978), Baztanen giroturiko *Mendeku eskubidea* nobelaren bidez. Kritika soziala eta umore ukituak dosi egokian uztartuz.**

**Nobela beltz bat, berriz, *Telleria eta gero zer?*-eko protagonista berreskuratuz: Larru, neska punk toxikomano ohia. Deika zeneukan zure paperetan berragertzeko?**
Aitzineko nobelaren tramak buruhauste aunitz eman zizkidan, eta askotan erran nuen ez nuela deus beltzik berriz idatziko. Denborak, baina (eta memoria txarrak, segur aski), adiskidetu egin nau generoarekin eta liburu honen pertsonaiak eta trama modu argiagoan etorri zitzaizkidan burura. Oraingoan gehiago disfrutatu dut hariak josten.

**Gaurkotasunezko gaiak oso presente daude nobelan: arrazismoa, gizarteko baztertuak eta inklusioa, feminismoa…**
Gai horiek ekarri nahi nituen mahai gainera, kontzientziaren ahots gisan, usu ikusezinak direlako. Gure jendarteak hipokrisiaren ispiluan begiratzen dio bere buruari, horregatik izan behar zuen nobela beltza, kritika soziala egiteko egokiena delako; eta horregatik Baztanen, postal idilikoari mozorroa kentzeko.

**Zeure burua ere parodiatzen duzula dirudi, eta autofikzioari keinu batzuk egiten dizkiozu…**
Nire kontraesanetako bat da, edo Ernesto pertsonaiarena, eta autofikzioa idatzi nahi ez duen idazleak horixe idazten bukatzen du. Pertsonaia hori hasieran bertze modu batekoa zen, bertze izen batekin, baina mendekuak traman indarra irabazi ahala beharrezko aldaketak egin nituen, neure burua traman korapilatua ikusi arte.

**Zure aurreko nobelak polemika piztu zuen; idazle batentzat poztekoa da kalean eragina sortzea?**




**MENDEKU ESKUBIDEA**
Ernesto Prat Urzainki
ELKAR

Telebistako albistegiei erreparatuta ondorioztatu daiteke literatura ez dela gauza garrantzitsua, baina liburu batzuek ederki aztoratzen dute artaldea, eta hori pozgarria da.

# JOXEAN AGIRRE

***Gizon barregarriak* eman du argitara Joxean Agirrek (Azpeitia, 1949), bere ohiko ildoan hainbat hari nahasten dituena, tartean direla ironia, politika, sexua… koktel literario baterako osagai bikainak.**

**Nobelan oso ageriko da sentsualitatearen gorazarre bat.**
Gaztetasunaren gorazarrea dagoela esango nuke. Protagonista maskulinoak jubilatu berri dira eta harreman estua dute elkarrekin, berrogei urte lehenago, gaztetan, komando batean ibiliak direlako. Adinaren talaiatik mundua eta bizitza nola ikusten duten agertzen saiatu naiz, eta kontraste moduan protagonista femenino gazte bat jarri diet, lilura eragiten diena.

**Neskak, xarma izateaz gainera, ikerketarako dohain handiak ditu.**
Bai. Maria Mendizabal uniformatuen usainei buruzko tesi bat idazten ari da lurringile baten laguntzarekin, horrez gain sexu kasualari buruzko landa-ikerketa baten emaitzak argitaratuko ditu, eta gainera 68ko belaunaldikoen eboluzio edo inboluzio ideologikoari buruzko lan bat egin nahi du, eta hor egingo du topo komandoko ekintzaile ohiekin.

**Berrogei urte geroago, jubilatu berritan, aspertzen direlako-edo, atrako bat egitera joango direnak…**
Aspertzen direlako, nostalgia dutelako edo apustu bat egin dutelako, baina ekintza burugabe hori egingo dute. Hori da nobelaren sorreran dagoen anekdota.

**Badaude hari gehiago ere: maskulinotasunaren kritika bat, esate baterako.**
Maskulinotasun mota baten kontrako satira edo parodia batzuk ere badaude, gaiak horretarako bidea ematen duelako.




**GIZON BARREGARRIAK**
Joxean Agirre
ELKAR

**Bigarren nobela bat ere sartu duzu nobelaren barruan.**
Aspaldidanik nuen buruan inoiz idaztera iritsiko ez nintzen proiektu bat. Atxilotu bati euskaraz idatzitako nobela gogor bat aurkitzen diote etxean, eta itzultzera behartzen dute. Gaia oso gogorra denez, itzulpen bat asmatu behar du orrialdez orrialde.



ARGAZKIA: SUSA

> “Dena doa azkarregi, beti aurrekoa baino azkarrago, abiadura esponentzialean”

# LIDE HERNANDO




**IZOTZ URA**
Lide Hernando Muñoz
SUSA

**Literaturan musikan baino beranduago sartu den arren, beti izan du idazteko gogoa Lide Hernandok (Donostia, 1991). Eta desio horretatik sortu du *Izotz ura* (Susa), musika abiapuntu hartuta laguntasunaz ari den nobela. Belaunaldi baten erretratu bat.**

**Eleberri sendo batekin estreinatu zara literaturan. Nola izan da prozesua?**
Bi hitzetan, luzea eta polita. Ia bi urte egin ditut hau idazten; urtebete estruktura lantzen, eta beste urtebete idazketan. Kontziente nintzen, lehen eleberri bat izateko, estruktura zaila hautatu nuela; bi protagonista eta ikuspuntu ditu, baita denboran saltoak ere. Baina banekien ere kontatu nahi nuen istorioak ez zuela zentzurik bi ezaugarri horiek gabe.

**Musika usaintzen da ia orrialde guztietan, baina laguntasunari buruzko nobela dela diozu.**
Halaxe da. Idazten hasi nintzenean, musikaren industriari buruzko istorio bat kontatzera nindoala uste nuen. Aurrera egin ahala, ordea, fikzio-idazketaren inguruan egindako ikerketetan ikasitakoa gogoratu nuen: azken finean, bi eskuetako hatzez zenba daitezkeen gai unibertsal batzuk daudela, eta historian zehar mundu osoan idatzitako istorio guztiek gai horiek jorratzen zituztela, ez besterik: maitasuna, heriotza, familia, harremanak, traizioa. Nik neuk ere, hasiberriaren ausardia horri tiraka, gai unibertsal horietatik aldendu nahi izan nuen, baina ezinezkoa dela ohartu naiz. Eta ze poza hala ere, aizu!

**Bi pertsonaia nagusi: Mara eta Saioa. Biak musikariak. Bietan topatu duzu zure burua?**
Guztiz; are, bietan nire burua topatu baino, esango nuke niregandik abiatu direla. Bakoitzak ditu nire izaeratik ezaugarri batzuk, eta beste zati asmatu bat. Ni ez naiz inoiz izan ideia hermetikodun pertsona bat; oso aldakorra izan naiz, eta kontradikzio askotan erori izan naiz. Kasu honetan, kontradikzio horietatik sortu dira Mara eta Saioa; momenturen batean niregan egon diren ideia kontrajarri horiek bi pertsonaiatan hezurmamitu dira.

***Millennial*ek aise identifikatuko dute beren umezaroa eta gaztaroa.**
Uste dut azken aldian badagoela *millennial*on artean gure “garaia” fikzioaren bitartez aldarrikatzeko joera bat. Badirudi iritsi garela puntu batera zeinetan Z belaunaldiak jada bere adierazpideak bideratzeko lehen lerroa eskuratu duen, eta guk, bigarren planora uste baino lehenago kondenatuta sentitu garenok, hasi garen gure belaunaldiak izan dituen gauza berezi horiek modu melankolikoan islatzen. Berez ez luke hala izan behar; melankolia zaharren gauza izan ohi da, ezta? Baina dena doa azkarregi, beti aurrekoa baino azkarrago, abiadura esponentzialean.

**Musika eta literatura uztartzen jarraituko duzu?**
Nahiko nuke. Jada zaila da musika beste ogibide batekin tartekatzea; bada, imajinatzen dut are zailagoa izango dela musika, literatura eta dirua eman dezakeen beste edozein lan tartekatzea! Baina saiatu nahi dut. Literaturan beranduago sartu naizen arren, beti eduki dut idazteko gogoa, musika egin nezakeela jakin baino lehenagotik.

**ANA ABARISKETA**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/lidehernando**



# UN CRIMEN EN LÍNEA RECTA

## Una novela que redefine la narrativa de misterio contemporánea

*Un crimen en línea recta* es la más reciente novela del escritor navarro Fermín Goñi. Este thriller, que se sumerge en un laberinto de misterio y suspense, promete ser un hito en la literatura de misterio contemporánea.

Goñi, nos traslada al mundo de Marta MacDonald, una economista madrileña cuya vida en Londres da un vuelco tras la repentina muerte de su padre. Decide regresar a Majadahonda con su hija Laura y vivir en The Four Seasons (conocida como la For), una urbanización de lujo diseñada por su padre que tiene un pasado oscuro que la propia Marta desconoce. La llegada de Lobe, un cachorro de *alaskan malamute*, a la vida de Laura y Marta añade una dimensión única a la trama.

Con su prosa incisiva, Goñi teje una narrativa que atrapa desde la primera página. Explora la psicología profunda de sus personajes al tiempo que mantiene a los lectores en vilo. La sospecha de Marta sobre la muerte de su padre, las denuncias de varios robos y la ayuda de un exjefe de policía casi mudo y en silla de ruedas desembocan en una serie de revelaciones impactantes, hasta convertir la For en un escenario lleno de tensiones, muertes y secretos.

**Fermín Goñi**, nacido en Iruñea y licenciado en Periodismo y Ciencias Políticas, es un escritor polifacético. Con un historial literario que abarca desde la narrativa histórica hasta el ensayo periodístico, Goñi ha demostrado ser un maestro en la creación de mundos ricos y personajes complejos. Autor de obras como *El hombre de la Leica*, *Los sueños de un libertador*, *Todo llevará su nombre* y **Un día de guerra en Ayacucho**, Goñi se ha consolidado como una voz única en la literatura contemporánea.
*Un crimen en línea recta* es un emocionante e inquietante viaje literario, una novela destinada a convertirse en una referencia para los aficionados al género.




**UN CRIMEN EN LÍNEA RECTA**
Fermín Goñi
FCE

# DESCUBRE A LOS MEJORES MÉDICOS DEL MUNDO:

## el doctor dieta, el doctor quietud y el doctor alegría




**HSTORIA DE LA MEDICINA NATURAL**
Dr. Karmelo Bizkarra
ZUHAIZPE EDICIONES

La frase que encabeza este texto, surgida de la pluma de Jonathan Swift, resume el espíritu y la práctica de la medicina natural, la tradicional *ars medica*, el arte de la curación. Una filosofía perenne que, a lo largo de los siglos y las culturas, ha ayudado a mantener y recuperar la salud de sus coetáneos. El libro *Historia de la medicina natural*, del doctor **Karmelo Bizkarra**, repasa esa tradición.
Desde los hipocráticos a los alquimistas, desde los iatroquímicos a los primeros higienistas de las sociedades industriales, desde los filósofos de la naturaleza a los heterodoxos del siglo XX y a los médicos integrativos de la actualidad, los protagonistas de la historia de la medicina natural demuestran que la salud tiene que ver más con vivir en armonía con uno mismo y los demás, con comer bien, con el contacto con la naturaleza y con la consciencia de las cosas que con la lucha contra la enfermedad y los microbios.
La salud no se compra en la farmacia ni en la herboristería, ni te la facilita ningún médico a cambio de una visita, una charla rápida y una o dos recetas. Es una conquista personal que se realiza cada día, durante toda la vida. Estas ideas han ido casi sin remedio a contracorriente de los estamentos sanitarios oficiales y han recibido, como respuesta habitual, la incomprensión, el acoso o el olvido. Sin embargo, hoy están más vigentes que nunca.
Este es el más reciente libro del doctor Karmelo Bizkarra, pionero en nuestro país de la medicina higienista, referente del ayuno terapéutico y fundador del centro de salud vital Zuhaizpe. Un nuevo título dentro de una colección hecha para educar en salud y para despertar al médico que más puede hacer por tu salud y que no es otro que tú mismo.



# JON ARRETXE

**Jon Arretxek (Basauri, 1963) ametsa errealitate bihurtu du Toure detektibearen abenturak Primeran eta RTVE plataformetan ikusi ahalko dugun telesail bihurtuta. *Musker Amarruak* sagaren hamargarren liburuaz ere mintzatu gara idazlearekin.**

**Nolakoa da zuk zeuk sortu duzun pertsonaiaren abenturak pantailaratzea?**
Niretzat betiko amets bat errealitate bihurtzea izan da. Liburuek izan dezaketen oihartzuna baino mila bider handiagoa izaten da ikus-entzunezkoena, eta nire Toure eta San Frantzisko auzoa serie bihurtuta ikusteak pozez betetzen nau.

**Sagaren hamargarren liburua da *Musker Amarruak*. Las Palmasen egingo du irakurleak topo harekin eta Musker pertsonaia berriarekin. Nolakoa da Musker?**
Musker kanariar borrokalaria da, txapeldun ohia. Tourerekin topo egingo du biak ortu batean lapurretan ari diren bitartean. Apustuetan oinarritutako borroka-ikuskizunak antolatzen ditu, dirua irabaztearren, eta Toure liatuko du zeregin horretarako. Horren ondorioz, gauzak asko konplikatuko zaizkio gure afrikarrari, beti bezala.

**Kostatuko al zaio Toureri konturatzea Muskerren amarruekin?**
Tourek primeran daki diru erraza lortzeko amarrutan ibili behar dela, eta berak horrela jokatu du hasieratik, San Frantzisko auzoan igarle plantak egiten zituenetik. Musker pertsonaiak ere jendeari ziria sartzen dio dirua ateratzeko, eta Tourerekin ondo moldatuko da. Azken baten, horrelako pikaroen filosofiako zutabeetako bat "dena xoxaren alde" da.


ARGAZKIA: EREIN

> *"Nire beldur handiena da errepikakor bihurtzea"*

**Umorea eta kritika uztartzen dituzu idazketan; irribarre batekin, bai, baina, kontzientzia pizteko modukorik ere ematen digu Tourek. Nola topatzen duzu oreka?**
Uste dut derrigorra dela, gaur egun inoiz baino gehiago, literaturaren bidez kritika soziala egitea, baztertuen mundua erakustea, bidegabekeriak salatu eta horretaz konturatzen ez den irakurle arruntari egoera horiek muturren aurrean ipintzea. Umorea nobelen gordintasuna konpentsatzeko erabiltzen dut. Batzuetan ez da erraza bakoitzaren dosi egokia erabakitzea.

**Euskarazko helduontzako narratiban ariketa ez ohikoa da saga luzeen biziraupena. Natural atera zaizun ariketa da?**
Sagako lehenengoa, *19 Kamera*, esperimentua izan zen niretzat. Arrakasta ikusita aurrera jarraitzea erabaki nuen, eta Toure pertsonaiarekin hamar nobela idatzi ditut dagoeneko. Nire beldur handiena da errepikakor bihurtzea, nobelak elkarren antzekoak bilakatzea. Hori saihestearren, nobela batzuek gehiago daukate umoretik, beste batzuek gordintasunetik; gehienak Bilboko San Frantziskon gertatzen dira, baina Euskal Herritik kanpo ere bai: Afrikan, Parisen, Madrilen, Las Palmasen...




**MUSKER AMARRUAK**
Jon Arretxe
EREIN

**Bizitzaren zati bat eman diozu Toure pertsonaiari. Nola aldatu da pertsonaia ulertzeko izan duzun modua?**
Toure sagaren hasieran etorkin heldu berria zen, bihotz onekoa, batzuetan gaixo samarra ere bai, ia txotxongiloa boteretsuen eskuetan. Baina bizitzak txarto tratatuko du eta pixkanaka, halabeharrez, bizkortzen eta gaiztotzen joango da. Nire idazkeran ere hasierako nobeletan entretenitzeari ematen nion garrantzirik handiena, baina kritika sozialaren arloak gero eta pisu handiagoa izan du. Aspaldi honetan lehen baino militanteagoa naiz gai batzuei dagokienez: arrazismoa eta xenofobia, boteretsuen abusuak, bazterkeria...

**LEIRE PALACIOS**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**https://labur.eus/arretxe**

LORALDIA FESTIBALA
10. EDIZIOA | MUNDUARI BEGIRATZEKO MODU BAT
MARTXOAK 1-23. BILBAO
EUSKAL KULTURA GARAIKIDEA PROTAGONISTA
SARRERAK: LORALDIAFESTIBALA.EUS
Ekoizlea: LORALDIA EUSKAL KULTURA GAUR
Babesleak: Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco, Bizkaia foru aldundia diputación foral, Bilbao, Laboral kutxa



ARGAZKIA: ELKAR

# JOXE MANUEL ODRIOZOLA




**NAZIONALISMOAREN ALDE ETA AURKA**
Joxe Manuel Odriozola
ELKAR

***Nazionalismoaren alde eta aurka*** **saiakera argitaratu berri du Joxe Manuel Odriozolak (Altzo, 1948), gure herria gogoan baina mundu osoa buruan, nazioka antolaturiko gizadiaren patu makurraz arduratuta. Zer pentsatua ematen duten iritziak.**

**Nazioa, hizkuntza, estatua... Gai horien bueltan ibili ohi dira zure gogoetak. Honakoan, zein da berezitasuna?**
Nazioa eta nazionalismoa aspaldi samarretik dabilzkit pentsamenduaren jiran. Baina oraingoan, besteetan ez bezala, nazionalismoaren alderdi makurrak ere azpimarratzen ditut. Nazionalismoaren bertsio askatzailetzat daukagu gurea, eta hori ez dut ukatu nahi, baina nazionalismoak aurpegi asko ditu eta horietako batzuk aski ilunak.

**Zein dira alderdi ilun horiek?**
Munduaren antolamendu ekonomiko eta soziala bidegabea denez, oso bidegabea Hirugarren Munduari edo Hego Globalari dagokionez, injustizia ikaragarri horren ardura nagusi bat nazio garatu eta aberatsen nazionalismoan dagoela esango nuke. Mundu aberatseko nazioak eta abertzaleok miseria gorrian bizi diren herrialdeei bizkarra erakutsita bizi gara.

**Betidaniko kezka duzu euskararen kinka larriaz. Iritzirik bai arlo horretan aspaldian entzuten diren ahotsekin?**
Euskararen egoera larriaz daukagun diskurtsoa soziolinguistikaren bertsio txepelaren iturriko pentsamoldea izan ohi da maizenik. Hain zuzen ere, euskararen zoria nazioarekin eta nazionalismoarekin lotu nahi ez duen diskurtsoa da gurea. Eta jokabide horrek ondorio larriak ditu euskarari buruzko pentsaeran eta praxian. Izan ere, mundu zabaleko herrialdeak nazio politikoetan edo Estatu nazionaletan egituratu zirenetik, hizkuntzen egoerak eta bilakaerak errotik baldintzatuak daude.

**Autore asko aipatzen dituzu zure saiakeran zehar. Egon da intelektualen bat bereziki harritu edo argitu zaituena?**
Badira begiko izan ditudan autore batzuk. Bat aipatzekotan, **Michael Billig** eta bere *Nacionalismo banal* izeneko liburua aipatuko nuke. Nazionalismoaren mekanismo hautemanezinak bistaratzen egindako lana aipagarria da. Besteak beste, era honetako iritziak aurki ditzakegu bere liburuan: "Nazionalismoaren kontzeptua haren agerpen exotiko suharretara murriztu dutenez, nazionalismoaren ohiko eta eguneroko moldeak ez dira aintzat hartzen. Ildo horretan, nazio-Estatuaren eguneroko nazionalismoa ez du hautematen gure begiradak".

**Inork ez du etorkizuna irakurtzeko tresnarik, baina zu beti izan zara ezkor samarra; ezkorra baina aktiboa, ez bertan-goxo geratzekoa. Halakoxea izaten segitzen duzu?**
Egia diozu: ezkorra naiz nagusitzen ari zaigun euskaldauntasunaren izaerari, funtzioari eta norabideari dagokienez. Iruditzen zait euskararen alde lan gehien egin den Euskadi izeneko komunitatean ere ez dugula mailarik eman. Euskadin ere ez da egiturazko aldaketarik eragin botere soziolinguistikoaren mekanismo hegemonikoei dagokienez. Hala ere, euskalgintzan nagusitu den diskurtsoak amesten jarraitzen du balizko euskararen normalizazio sozialarekin. Zoritxarrez, normalizazio sozial horren aldeko ebidentzia eta zantzu hegemonikorik ez da ikusten inon.

**TERESA LARREA**
Kazetaria

¿Qué se esconde bajo nuestra manera de amar?
La nueva novela de la autora que disecciona magistralmente las relaciones humanas.
DESTINO






# Elkar estudio berria Adunan

Adunan kokatu du elkar Taldeak grabaketa estudio berria. **elkar** Fundazioaren helburuen eta egitekoen artean dago euskal kulturaren garapenak behar dituen azpiegiturak sortu eta Euskal Herriaren eskura jartzea eta horri erantzunez eraiki da estudio berria ere. Estudioa egiteko, Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren laguntza jaso da, Next Generation EU programaren baitako funtsetatik.

Zabaleraz 250 $m^2$ dituen eraikinaren barruan, 56 kanaleko SSL 4000 G+ mahaia da estudioaren bihotza, grabaketa digitalaz gain, 24 kanaleko Studer A827 multipista analogikoarekin osatua eta Dolby Atmos edo Protools teknologietara egokituta. Bi grabazio gela independente –110 $m^2$-ko estudio nagusia eta 21 $m^2$-ko bigarren bat– eta 50 $m^2$-ko kontrol gela ditu estudio berriak eta era guztietako grabaketak egiteko aukera ematen du: taldeak, orkestrak, abesbatzak, txarangak, *big band*-ak...

Grabazio estudio propioa izateak orain arte aukera eman dio Elkar diskoetxeari 2.100etik gora lan propio ekoizteko, eta beste eragile askok ere izan du aukera bere beharretarako erabiltzeko. Grabaketa estudio horietan grabatu dira kantuak eta diskoak, material didaktikoa, podkastak, pelikuletarako soinu bandak, filmetako ahotsak... birmasterizatu dira euskal musikaren katalogoa osatzen duten ehunka disko, egin dira zuzeneko kontzertuak eta grabatu dira telebistarako saioak.

Bide beretik jarraitzeko asmoa du Elkar estudioak, azpiegiturak berritu eta eguneratuta, eta bere zerbitzuak euskal kultur eragileen beharrak betetzera bideratuta. Euskal Herriko musikarien eskura jarri du estudioa Elkarrek, eta horrez gain kultur eragileen beharretara egokitu ditu haren zerbitzuak, argitaletxeekin, diskoetxeekin, ekoiztetxeekin, telebistekin lan egiteko.

## IBILBIDE LUZEKO ESTUDIOA

1972an sortu zen Elkar argitaletxea, euskal kulturan zegoen gabezia eta gizartearen demanda betetzeko. Hasieratik izan zuen musikak arrakasta handia. Diskoak argitaratzeko, grabatu



ARGAZKIA: ELKAR FUNDAZIOA

egin behar zen eta grabaketarako estudio bakarra zegoen Euskal Herrian, Donostiako Gros auzoan Pako Miangolarrak sortutakoa, zeina Iñaki Beobidek erabiltzen zuen Herri Gogoa diskoetxeko ekoizpenak grabatzeko.

Elkar diskoetxeak Euskal Herritik kanpo grabatu behar izan zuen, hasieran Paris aldean eta gerora Bartzelona edo Madrilen. Kanpoan egin behar horrek asko garestitzen zuen ekoizpena (grabazioa, joan-etorriak...) eta koste horiek asko baldintzatzen zuten zer, noiz eta nola ekoiztu; batzuetan, bertan behera geratu ziren proiektu batzuk.

Hasieratik zuen, beraz, Elkar-ek grabaketa estudio baten beharra eta 1983an lortu zuen lehen estudioa jartzea Lasarten. Aurretik, 1975ean, Lapurdiko Milafranga herrian Ernest Irygoieni lagundu zion grabazio estudio bat muntatzen eta grabaketak han egiteari ekin zion. 1983an Lasarten atondu zuten, teknikaria Jean Phocas zela. Estudio hura muntatzeko, ordurako gelditu-ta zegoen Herri Gogoak erabiltzen zuen estudioko tresneria erosi zen, Pako Miangolarrarekin eta Iñaki Beobiderekin akordio batera iritsita. Estudioko tresneriarekin batera Herri Gogoa zigiluak argitaratutako produkzioa ere hartu zuen Elkar diskoetxeak, Iñaki Beobideren eskuzabaltasunari ezker.

1992an Lasarte utzi eta Donostiako Igara auzora aldatu zen grabaketa estudioa. Aldaketaren arrazoiak bi izan ziren, bata, **elkar**-en banaketa enpresa eta argitaletxea bertan kokatu zirela, eta bigarrena, lekua zegoela grabazio estudio handi eta on bat egiteko. Jean Phocasen gidaritzapean jarraitu zuen estudioak eta, garai berean, Cesar Ibarretxe ere izan zen bertako soinu teknikari hainbat urtez. Phocasek erretiroa hartu ondoren, Victor Sanchezek hartu zuen ardura.

2023an, Igaratik Adunara pasa da estudioa, **elkar** taldeko enpresak kokatu diren eremuan. Victor Sanchezek jarraitzen du teknika ardurarekin.

Berrogei urtetik gorako ibilbidean, estudioan grabatu dira Elkar eta Oihuka zigiluetan argitaratutako diskoak. Bertan grabatu izan dutenak asko eta asko dira eta ezinezkoa da denak zerrendatzea, baina batzuk aipatzearren: Alaitz eta Maider, Alberto Iglesias, Amaia Zubiria, Anje Duhalde, Benito Lertxundi, Berri Txarrak, Compay Segundo, Duncan Dhu, Eñaut Elorrieta, Euskadiko Orkestra, Fermin Muguruza, Gari, Hertzainak, Iñaki Salvador, Kalakan, Ken Zazpi, Kepa Junkera, Maixa eta Ixiar, Maddi Oihenart, Mikel Laboa, Niko Etxart, Nogen, Olaia Inziarte, Oskorri, Pantxoa eta Peio, Phil Cunninghan, Ruper Ordorika, Tapia eta Leturia... Elkar estudioaren zerbitzuak erabili dituztenen artean daude honako eragileak ere: HABE, EHI-ikaselkar, Elhuyar, Talka records & films, 5 Gora, Sony, Getin, Penguin Random House ...

# GALICIA EN CAMPER



FOTOGRAFÍAS: LOLI FLORES Y MARIO CRUZ

**Las personas amantes de los viajes en furgoneta están de enhorabuena. Dos especialistas consagrados como Loli Flores y Mario Cruz han elaborado una selección de rutas por uno de los destinos más aclamados de la península: Galicia. El resultado es *Rutas para conocer Galicia. Los mejores itinerarios en camper*, el libro imprescindible para sacar partido a nuestro viaje. En las líneas siguientes Loli y Mario nos presentan su ruta.**

No se pueden describir las emociones que surgen cuando atravesamos los montes de León por la A-6, asidos a altos viaductos para salvar los profundos valles. Las mismas emociones que cuando, en Benavente, nos desviamos para coger la A-52, con los cielos rojos del atardecer como destino. O cuando cruzamos la ría de Ribadeo desde Asturias con el mar de compañero de viaje. Galicia está cerca…

Galicia enamora desde el primer día. ¿Qué tiene que nos hace volver una y otra vez? Galicia es mar, casi 1.500 kilómetros de litoral bañados por el Cantábrico y el Atlántico. Multitud de entrantes y salientes, puertos, playas y estuarios conforman una costa iluminada por faros que posan a contraluz en los increíbles atardeceres gallegos.

Galicia es prados y valles, bosques impenetrables, preciosas cascadas que no dejan de escupir agua, aldeas y ciudades que esconden grandes historias. Galicia es un sinfín de flechas amarillas que acompañan al peregrino en su camino a Compostela. Es *terra* de *meigas*, *mouras*, bosques encantados, cultura, fiestas y tradiciones. Hablamos de dólmenes, castros, murallas, iglesias, castillos, hórreos, molinos y pazos, legado de un pasado que aún perdura.

**RUTAS PARA CONOCER GALICIA.**
**LOS MEJORES ITINERARIOS EN CAMPER**
Loli Flores / Mario Cruz
SUA EDIZIOAK

Galicia también es aventura. Aquí podemos acometer cualquier tipo de actividad que imaginemos, desde senderismo a bañarnos en unas termas romanas, practicar el surf o surcar los cielos en parapente.

Y, por supuesto, es gastronomía. ¿Quién se resiste a un caldo gallego, al pulpo *a feira*, a la gran variedad de quesos, a los pimientos de Padrón, a una empanada, a la patata, a su rico marisco y espectacular carne, o a sus *bicas* y *filloas*? Por no hablar de sus vinos y licores, claro.

lonely planet

LAS MEJORES GUÍAS PARA ORGANIZAR TUS VIAJES



### TAMBIÉN PIRINEOS Y EUSKAL HERRIA




Dentro de la colección **En Ruta** de Sua Edizioak, dedicada a viajes en algún tipo de vehículo a motor, son ya varios los títulos consagrados a las furgonetas. Todos han gozado de una gran acogida entre el público lector. Primero fue *Rutas para conocer los Pirineos. Los mejores itinerarios en camper*, precisamente de **Loli Flores** y **Mario Cruz**, que ya va por su tercera reimpresión desde su publicación en 2020.

En 2023 llegó el turno de Euskal Herria, con el libro *Euskal Herria furgonetaz. Ibilbiderik onenak*, de **Arkaitz Apalategi** y **Nagore Lizarralde**, traducido al castellano como *Rutas para conocer Euskal Herria. Los mejores itinerarios en camper*, ambos publicados en 2023.

Si tenemos la suerte de recorrer Galicia en camper, a nuestro ritmo, decidiendo a cada paso lo que vamos a hacer, parar las veces necesarias para conocer cada rincón, cada localidad que se nos cruce en el camino, poder disfrutar de su naturaleza sin ataduras... la vamos a gozar.

Este libro propone doce rutas por las cuatro provincias siempre en busca de la esencia más natural. Describe preciosas rutas de senderismo. Menciona esas infraestructuras cercanas con servicios para nuestra camper y algún lugar bonito para dormir. Esta guía pretende orientar, inspirar y animar a que planifiquemos nuestra propia aventura por tierras gallegas. Porque, como ya sabemos los que viajamos en camper o autocaravana, cada viaje será único.

Entonces ¿tienes todo preparado? Pues aquí comienza nuestra ruta por Galicia y… *¡se chove que chova!*

**LOLI FLORES Y MARIO CRUZ**
Viajeros

## NOBEDADEAK




**UZBEKISTÁN**
**PETIT FUTE**
AAVV
ALHENA

Uzbekistán es un destino en constante crecimiento que hay que visitar ya si se quiere disfrutar de su autenticidad, de su gastronomía y, principalmente, de la hospitalidad de sus gentes antes de que sea demasiado tarde y apenas se diferencie de otros lugares.




**CRÓNICAS DEL HIMALAYA**
**HISTORIAS DE UN CAMPO BASE**
Sito Carcavilla
DESNIVEL

Sito Carcavilla ha realizado 17 expediciones al Himalaya-Karakórum, casi todas ellas formando parte del equipo del alpinista Carlos Soria. Ha coronado tres ochomiles. En total, ha vivido más de dos años de su vida en campos base.




**PARQUE NATURAL DE POSETS-MALADETA**
Gorka López
SUA EDIZIOAK

El parque natural de Posets y Maladeta engloba los dos macizos pirenaicos de mayor altura, Posets y Aneto-Maladeta, y congrega el mayor número de tresmiles de la cordillera. Esta guía propone 35 rutas montañeras a sus cumbres principales.




**MAPA NATIONAL ESPAÑA-PORTUGAL**
AAVV
MICHELIN

Los mapas de carreteras de la colección National disfrutan de una escala detallada y ofrecen una cartografía fiable y clara, para facilitar su viaje y orientación, gracias tanto a su actualización anual como a la abundante información.




**AMA LUR MIRESGARRIA**
**LANDARE ETA ANIMALIA HARRIGARRIAK**
Amador Prieto / Joseba del Villar
SUA EDIZIOAK

Euskal Herriko landare eta animaliek hamaika berezitasun dituzte. Liburu honetan horietako asko aurkituko ditugu. Euskal ekosistemetan buru-belarri murgilduko gara, jakin-mina akuilu eta argazki ikusgarriak bidelagun, miretsita utziko gaituzten unibertso natural ezezagunen bila.




**LETHAL CRYSIS**
**UN MUNDO DE HISTORIAS**
Rubén Díez
BEDICIONES

El mundo está repleto de historias que ni te imaginarías, y Rubén Díez –creador de Lethal Crysis, el canal de viajes extremos– ha recorrido un sinfín de países para que todos podamos conocerlas.



# GARI & MALDANBERAREN *BEHIN BIZITZEA*



**Garik disko berria dakar udaberriarekin. Aro berri baten hasiera da, bere betiko dohainei uko egin gabe aurretik ibili gabeko bideetan barrena emandako lehenengo urrats sendoak. Azken urteotan bezala, Maldanbera talde dotorea dakar bidelagun. Eta oraingo honetan Iker Lauroba ere batu da grabaketara. Emaitza, *Behin bizitzea*, bikaina da.**

Euskal musikari gutxik egin dute **Gari**rena bezalako ibilbide artistiko luze, itzaltsu eta emankorra. Talde mitiko batean lehenengo, bakarrik geroago, berrogei urteko jardun oparoak lorratz sakona laga du zaletuen artean. Eta *Behin bizitzea* disko berri honek erakusten duen bezala, iturria ez da agortu, ezta hurrik eman ere. Baditu bidea urratzen jarraitzeko mihimenak eta gogoa.

Izan ere, *Zuzenean 2022* diskoak aurreko zikloa ixteko balio izan bazuen, *Behin bizitzeak* aro berri bati ireki dio atea. Eta, ikuspegi horretatik, emaitzak egoki erantzuten du. Album honetako doinuek argi eta garbi erakusten dute **Gari**ren bertute handienetako bat sasoi betean dagoela: tonu batetik bestera modu naturalean aldatzeko trebezia ikaragarria. Aldaketa horiei esker abesti berez ederrak are ederrago bihurtzeko modua aurkitzen du legazpiarrak.

Doinuoi **Garik** bere abesteko estilo pertsonal eta landua ere erantsi die, jakina. Eta bere disko guztietan bezala, idazle ezagunen hitzak hartu ditu lehengaitzat. Hitz iradokitzaile, liluragarri eta ederrak, zer pentsatua ematen dutenak, ohiko leloetatik urrun, zirtzilkeriarik gabe. Hitz jostariak, armonia eta dinamika sorta zabal batekin bikain egokitzeko gauza.

Eta orain arte esandakoa goitik behera egia izanik ere, talde-lana ere bada disko berri hau. Entzutearekin batera jabetuko gara **Garik** eta Maldanberak lan handia egin dutela album hau ontzeko. Entsegu-ordu asko behar da dena fintzeko eta neurrian akoplatzeko. Ezinbestean, proba andana baten premia dago ondoen zer funtzionatzen duen ebazteko. Horrela egiten baitira tankera honetako diskoak, hutsik eta arrakalarik gabeko albumak, sendoak eta seguruak.

Behin bizitzea Elkarren estudio berrian grabatu da, Adunan, otsailean. Azken urteotan ohi bezala, Maldanbera taldea eduki du lagun, osagarri eta konplize: **Alex Alonso** (bateria eta programazioak), **Oier Aldekoa** (baxua), eta **Miguel Moyano** (gitarra eta programazioak). Nobedadea **Iker Lauroba**ren ekarpena izan da. Donostiarrak teklatuaren ardura hartu du grabazioan, ahotsean laguntzeaz gain. Arlo teknikoan **Victor Sanchez** (ingeniari) eta **Unai Mimenza** (nahasketak) aritu dira.

### HAMABI DISKO

Bakarkako ibilbidean, **Garik** grabatu duen hamabigarren diskoa da hau. Aurretik, *Gari* (1995), *Eguzki berrian zaude* (1997), *Gari ta otoitz gure alde* (2002, zuzenekoa), *0-tik* (2004), *Esperantzara kondenatua* (2007) *16 lore* (2009) eta *Ez da amaiera* (2013) plazaratu zituen bakarka. Maldanbera taldearekin, berriz, *Estutu* (2016), *Beste denbora batean* (2018), *Zerua & Gaua* (2021) eta *Zuzenean 2022* (2022) eman ditu argitara.



# HOGWARTSera itzultzeko desgarairik ez dago




**HARRY POTTER ETA SORGIN-HARRIA**
J. K. Rowling
ELKAR

**HARRY POTTER ETA SEKRETUEN GANBERA**
J. K. Rowling
ELKAR

**HARRY POTTER ETA AZKABANGO PRESOA**
J. K. Rowling
ELKAR

**HARRY POTTER ETA SUAREN KOPA**
J. K. Rowling
ELKAR

Zer esan honetara ezkero Harry Potterri buruz? Leitu ez duenak ere badu haren berri. Liburuen lehen argitaraldian zaletutako haur eta gazte haietako asko, gurasotu eta osaba-izebatu ahala, seme-alabak eta ilobak zaletzen ari dira orain. Bada seme-alaben edo iloben *kulpaz* zaletu den guraso eta osaba-izebarik ere. Eta bada, ez pentsa, heldutan gazteagoen *kulparik* gabe Hogwartseko magia-eskolan liluraz murgildu denik ere.

Fama ez du txiripazkoa: bidaldia zinez da ahaztezina. Harry Potter ez da soilik Voldemort azti ilunak hil nahi bai baina hil ezin izan zuen mutiko umezurztua; ez da soilik bizirik irten zen mitoa. Hezur-haragizko, Harry Potter lagun min bihurtzen zaio irakurleari, eta eskutik darama azti-sorginen mundua ezagutzera: hasierako txundidura eta inozentzia, Hogwartseko paradisu magikoaren abaroan; hazi ahala piztutako auzi transzendentalagoak, misterio lokabeak, arazoetan sartzeko zoritxarra eta (zergatik ez aitortu) zaletasuntxoa, eta, laburbilduz, munduaren samurra eta gordina. Azken batean, *muggle* edo pertsona ez-magikoon miseriak eta azti-sorginenak, irudi lezakeenaz bestera, ez daude hain aparte.

Mundu oso bat, pertsonaia eta kreatura sorta zabal eta gogoangarri batez jantzia; izan ere, Harry, Hermione eta Ron protagonistek ez ezik, sekundariotzat jo ohi diren beste pertsonaiek ere sekulako kolorea eta funtsa ematen diote istorioari: barren ilunkarako pertsonaia bihotz-zabalak, trakets itxurako airosak, kakati ausartak, zital ustez nobleak, txintxo ez hain txintxoak eta gaizto ez hain gaiztoak… Ez alferrik, norberaren argi-ilunei zer bide ematen asmatzea da liburuaren gai nagusietako bat, eta, horri lotuta, beldurra eta ausardia (maiz txanpon beraren aurkian biak, ez aurki-ifrentzuetan), patua eta erabakimena, bakardadea, laguntasuna, eta maitasuna zentzurik zabalenean.

**HARRY POTTER ETA SUAREN KOPA**

Harryk hamalau urte bete berri ditu. Udan osaba-izeba gogaikarrien etxean egon beharra gutxi ez, eta gauean izandako amets ilun batek minez esnarazi du bat-batean: min ematen dio kopetako orbain tximista-formakoak, Voldemortek hamahiru urte lehenago egin zion zauriaren oroigarriak. Kezka hori kolkoan, laster etorriko zaio, zorionez, azti-sorginen mundura itzultzeko parada: bere lagun Ronen etxera aurrena, Munduko Quidditch Kopako final zirraragarrira gero, eta Hogwartseko eskolara azkenik: bere benetako etxera, alegia. Hau ere ez da, ordea, ikasturte arrunta eta lasaia izango. Orain arte ez bezalako desafio arriskutsuei aurre egin beharko die Harryk. Hermione, Ron, Hagrid eta beste adiskideen laguntza guztia beharko du onik aterako bada, halabeharrez haurtzarotik helduarorako pausoa emanaraziko dion bidaia argi-itzaltsu honetan.

**Joanne Rowling** idazleak iaio darama irakurlea, koskaz koska, Harryren eta haren mundukideen iragana eta etorkizuna argitzeko bidean, idazkera biziz baina errazkeriarik gabe, ezer haririk gabe josteke. Duela hogei urte inguru argitaratu zituen Elkarrek lehen aldiz euskaraz zazpi liburuak, **Iñaki Mendiguren**en itzulpen bikainean, eta berrikusirik datoz orain berriro plazara, gazteak eta ez hain gazteak atzera edo hutsetik sorgintzeko prest.

**MAIALEN BERASATEGI**
Itzultzailea






***Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa** abian da. Hamaseigarren aldiz jarri du martxan **elkar** Fundazioak haur eta gazteengan irakurzaletasuna eta euskararen erabilera bultzatu nahian. Urteotan milaka haur eta gaztek hartu dute parte bertan, kalitate handiko lanak aurkeztuz. Aurten, **Jon Ander Urkiaga**k idatzitako* Azeri ase ezina ipuina *irakurri eta ilustratu beharko dute txikienek. Haurrek, berriz, **Raquel Samitier**rek sortutako ilustrazioa oinarri hartu beharko dute ipuina sortzeko. Komikiaren atalean, ordea, gazteek bi aukera izango dituzte: **Raquel Samitier**rek hasitako komikiari jarraipena ematea edo komikiak darabilen gai beraren inguruan (mezutxo bat botilan) komikia hutsetik sortzea.*

*Parte hartuko duten haur eta gazteentzako sari ederrez gain, ikastetxeei eskainitako sari bereziak izango ditugu aurten ere. Alde batetik, **Laboral Kutxa**k bi ikasgelarentzat saria emango du; bestetik, **Irrien Lagunen Kluba**k bere aldizkariko harpidetzarekin eta opari sorpresa batekin sarituko du parte-hartzea.*

*Ipuinak, ilustrazioak eta komikiak entregatzeko azken eguna martxoaren 22a izango da.*


komikia


**AZERI ASE EZINA**

Orain kontatuko dizudan hau, aspaldi-aspaldi gertatu zen, animaliek bertsotan hitz egiten zuten urrutiko garaietan. Orduan ere, udazkena bukatzearekin batera heltzen zen negua, eta urte hartakoa gerturatzen zebilen. Hori zela eta, Azerik udazkeneko azken egun haiek ondo erabili nahi zituen sabela betebete egiteko. Izan ere, batek jakin elurra heltzerakoan otordu oparorik egiteko moduan egongo ote zen…

Egun hartan, goizean goiz abiatu zen Azeri ehizara. Behe-lainoa nagusi bazen ere, etxetik irten eta lasterrera luzatu zion begirada sagu txiki eta jostari bati. Ihes egiten uzteko batere asmorik gabe, Azerik korrika bizian igaro zituen iratzeak, sasiak, zuhaixkak… eta sagutxoa ohartu baino lehen heldu zion buztanetik.

—Oh, ene Sagu maite!
Jan egin behar zaitut, eta tripa bete.

Ipuin osoa elkar.eus webgunean


marrazkia



***elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa**k haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea du helburu. Horretarako hiru modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera:*

**IPUINA ILUSTRATU**

Haurrek, eskolako ikasturtearen arabera, hiru maila hauetako batean parte hartzeko aukera izango dute:

**A maila ilustrazioa**
HH 4 eta HH 5
(edo txikiagoak)

**B maila ilustrazioa**
LH 1 eta LH 2

**C maila ilustrazioa**
LH 3 eta LH 4

Haurrek **Jon Ander Urkiaga**k idatzitako *"Azeri ase ezina"* ipuina ilustratuko dute.

**ILUSTRAZIOA IPUIN BILAKATU**

Haurrek, eskolako ikasturtearen arabera, bi maila hauetako batean parte hartu ahal izango dute:

**D maila ipuinak**
LH 5 eta LH6

**E maila ipuinak**
DBH 1 eta DBH 2

**Raquel Samitier**-ek egindako ilustrazioarekin ipuin bat osatuko dute, euskaraz. Lan guztiak ordenagailuz eta orrialde bakarrean idatzita aurkeztuko dute. Ez dira orrialde bat baino gehiagotan aurkeztutako lanak onartuko.

**KOMIKIA SORTU**

Gazteek, eskolako ikasturtearen arabera, maila honetan parte hartu ahal izango dute:

**F maila komiki edo bineta**
DBH 3 eta DBH 4

Eman jarraipena **Raquel Samitier**-ek hasitako komikiari edo beronen gaia mantendu (mezutxo bat botilan) sortu komikia hasieratik.

**Martxoaren 22**ra arteko epea duzu lanak bidaltzeko.

**PARTE HARTU!**

Oinarriak zehatzago eta landu behar diren ilustrazioa eta ipuina:
**https://postdata.elkar.eus/ilustrazio_eta_ipuin_lehiaketa/**

**SARIAK**

Ilustrazioa egiten dutenen artean, maila bakoitzeko (A, B eta C mailak):

**1. Saria**
Jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (70€)

**2. Saria**
Jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (60€)

Ipuina egiten dutenen artean, maila bakoitzeko (D eta E mailak):

**1. Saria**
Tablet bat, jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (100€)

**2. Saria**
Tablet bat, jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (80€)

Komikia egiten dutenen artean (F maila):

**1. Saria**
Tablet bat, jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (100€)

**2. Saria**
Tablet bat, jolas hezitzaile sorta ederra eta opari txartela (80€)










+2




**TOMAS TXANTXAZALEA**
Jorge Rico Rodenas
PAMIELA/ KALANDRAKA

Sorpresaz eta irudimenez betetako album ezin dibertigarriago bat. Tomas haur geldiezina da, eta izugarri gustatzen zaio bisitak etortzen direnean mozorrotzea.




**1, 2, 3 ZENBAKIAK**
Joana Jesus
TTARTTALO

Zenbakiak idazten ikasi nahi? Liburu honekin oso erraz ikasiko duzu! Liburuan 1etik 20ra arteko zenbakiak ikasteko jarraibideak, kaligrafia lantzeko grafismo ugari eta makina bat pertsonaia dibertigarri!

+2




**IZAKI BITXIAK**
Cristina Sitja Rubio
TXALAPARTA

Izadiaren, pertsonen eta animalien arteko bizikidetza harmoniatsua aldarrikatzen du liburu honek, hierarkia oro gaitzetsiz. Cristina Sitja Rubio autore arrakastatsuaren albumik ezagunena da.




**LA PROMESA DE LOS PANDAS**
Rachel Bright
EDELVIVES

En lo alto de las montañas, Coco y Ketu, dos hermanas, cachorros de panda rojo, viven bajo la protección de su madre. Ambas prometen no alejarse y cuidar la una de la otra. Pero, a medida que crecen, el deseo de explorar se hace cada vez mayor.




**GU, HAURTXOAK!**
Alexandra Garibal
TTARTTALO

Guk badakigu bakarrik janzten, jolas egiten, jaten... Txikien lorpenak handiak dira! Lehen iruditeri eta hiztegi proposamen alaia, eguneroko haurtxoen une eta objektuak elkarrekin identifikatu eta izendatzen hasteko.




**¡YO PRIMERO!**
Miriam Tirado
CARAMBUCO

Lucas quiere ser el primero en todo: en llamar al ascensor, en escoger el juego, en hablar en la asamblea,... Y claro, eso le trae muchos problemas y conflictos.

+6




**DARDARAK**
Karmele Mitxelena
TXALAPARTA

Bi emakume adinduren arteko maitasuna eta elkar zaintza du ardatz liburu honek, bai eta "etxe" esaten ahal zaion aterpe baten beharra aldarrikatzen ere.




**ENIGMAK. MUNDUKO MIRARIAK**
Victor Escandell
TTARTTALO

Probatu zure detektibe gaitasuna Enigmak bildumako erronka berri honekin! Munduko mirari eta eraikuntza miragarrienetara bidaiatuko duzu, eta aurre egingo diezu ikertzaile argienen mailako misterioei.




**AMESGAIZTO ETA AMETSEDER. DRAGOIAK ADARBAKARREN KONTRA**
Laura Borio
MEZULARI

Amesgaiztoen eta Deabruen Gaua iritsi da eta Nix Amesgaizto herriko haur batentzat bere lehen amesgaiztoa prestatzen ari da. Hala ere, zerbait ez dago ondo: Nix sartu den gela txikian, bazter batean, Ametseder bat dago!




**GOOKAPI. IRATXOAK ETA URAREN MISTERIOA**
Iñigo Arrasate
MEZULARI

Abentura berri bat hastera doa Gookapi basoan. Zazkatan munstroak gaiztakeria berri bat egin du eta ibaiko ura kutsatu du. Mithy, Liz, Pintxo, Hur eta Ezki iratxoek misterioa argitu beharko dute. Lortuko ote dute?




+6




### BONOBO BETAURREKO-DUNEN EGIAZKO HISTORIA
Adela Turin
PAMIELA/ KALANDRAKA

Orain dela urte asko, hainbat bonobo oihanean bizi zen, mangladi batean. Egun guztia fruitu eta baiak, intxaur eta haziak, sustrai eta kimuak jaten ematen zuten, eta, bonobo emeak lan eta lan aritzen ziren janaria biltzen.




### ESCUELA DE MONSTRUOS 14. APESTOSO PERO DELICIOSO
Sally Rippin
MONTENA

Aprende a leer en la Escuela de Monstruos, la más apestosa y divertida que existe. Más de un millón de pequeños lectores.

+8




### 24 ORDU OIHANEAN
Lan Cook
TTARTTALO

Esploratu Borneoko oihan tropikalaren barnealdea, Ellie eta Danny bikiekin. Ikasi nola laguntzen dien zuhaitzak landatzeak arriskuan dauden animaliei, eta zergatik kakalardoak garrantzitsuak diren oihana osasuntsu egoteko.




### HEREDEROS 1. EL LEGADO DE LOS HÉROES
Juan Gómez-Jurado
B DE BLOK

¡La nueva serie de los autores de Amanda Black! Conoce a los Herederos, la última defensa contra las fuerzas del mal. Hace cien años, la poderosa Organización ayudó a proteger el mundo y erradicar el mal. O eso creían...

+8




### LOS TRES TERRIBLES INVENTOS DE WALTER SWITZWIT
Ben Brooks
BLACKIE BOOKS

Un viejo carromato se aproxima a Rainwater, el pequeño pueblo de trabajadores en el que viven Víctor y su tortuga Oswald. En él viaja Walter Swizwit, vendedor ambulante y presuntuoso inventor de tres artefactos, según él, revolucionarios.

+10




### SARA-LI. MILA URTE GEROAGO
Julio Santos
XARPA BOOKS

Kaixo, nire izena Sara-Li da, eta botere magikoak ditut... edo horrelako zerbait. Txano eta Oscarren abenturetatik ezagutuko nauzu agian, baina hau nire abentura da.




### EL SECUESTRO DE SAN FERMIN
Alberto Garayoa / Idoia Saralegui
EUNATE

Es uno de enero, primer peldaño de la escalera sanferminera, y Pamplona amanece consternada con la desaparición de san Fermín.

+12




### UN FUEGO EN LA CARNE
Jennifer Armentrout
PUCK

De la autora *best seller* del *New York Times* Jennifer L. Armentrout llega el tercer libro de su aclamada saga *De carne y fuego*. Ahora solo puede salvar a los mundos, la única cosa más poderosa que los Hados...

+12




### EMPIREO 2. ALAS DE HIERRO
Rebecca Yarros
PLANETA

El segundo volumen de la serie Empíreo tras *Alas de sangre*. El fenómeno juvenil de fantasía del que todo el mundo habla. No te pierdas la primera edición exclusiva y limitada con tacos ilustrados.




### TODOS LOS HOMBRES DEL REY
Laura Gallego
MONTENA

Una historia de amor verdadero que continúa el universo de *Todas las hadas del reino*, la vuelta de tuerca que 50.000 lectores no sabían que estaban esperando. La magia más poderosa surge donde menos te lo esperas...




### LURRALDE EZEZAGUNA
Luis Leante
GILTZA EDEBÉ

Duela lau urte, sute batek Alberto Solerren biltegia suntsitu zuen Hondaresen. Kutxa gotorrean giza hezur batzuk aurkitu zituzten. Padilla agenteak kasuan pertsonalki inplikatuta ikusi zuen bere burua.




### DARK STREET
Sofía González Calvo
EDEBÉ

A sus trece años, Diego es uno de los jóvenes más famosos y ricos del mundo. Es el protagonista de Dark Street, una serie vista en todo el planeta. Lo malo es que se trata de una serie de terror, y está atrapado en ella.



# NOBEDADEAK
## *liburuak*




### MUNDU ZITALAREN KONTRA
Lizar Begoña
ELKAR

Bi bakardade paraleloren kontaketaren bidez, egungo gizartearen erretratu zorrotz bat egiten du egileak. Lizar Begoñak begirada eta estilo propioak erakusten ditu Igartza sariari esker idatzitako bere lehenengo eleberri honetan.




### BARKAMENA EXISTITUKO BALITZ BEZALA
Mariana Travacio
EREIN

Gorroto trinkotuei eta mendekuei buruzko istorio honetan, Travaciok sentsazio sare indartsua ehundu du unibertso bat eraikitzeko: sakon-sakona, soila irudituagatik, eta harrigarri eta lazgarria, Comala eta Juan Rulforen sinbolismoa oroitaraziz.




### ARRABIOEN GERRA
Karel Capek
EREIN/IGELA

*Arrabioen gerra* zientzia fikzioko klasiko handi bat da. Bigarren Mundu Gerraren bezperan idatzia da, Txekoslovakian, eta, liburuaren ezaugarri nagusietako bat den umoreagatik ere, agerikoa da hondamenaren itzala.




### CARVALHO EUSKADIN
Jon Alonso
SUSA

Bi nobela batean harilkatu ditu Jon Alonsok lan berrian, hari beltzez harilkatu ere, Euskal Herriko politika, janariaren zeremonia, historia hurbila eta literatur munduaren argi-ilunak lotuz.




### ALTXA, HILDAKOAK
Fred Vargas
TXALAPARTA

Ager al daiteke pago bat egun batetik bestera, gau bakarrean, inork hura landatu gabe? Halaxe gertatu da Sophia Siméonidis kantari opetsuaren lorategian, eta ordutik ez du lorik egiten.




### DEI GALDU BAT
Idoia Garzes
ELKAR

Oporretako hondartza zoragarri batean, botila batean gordeta, itsasoan galdutako bizitza baten istorioa; testamendu bat, erregu bat.Itsasoaren hegi banatan bereizita Aminata eta Itsaso. Bata beltza eta zuria bestea, argazki baten negatiboan bezala.




### MIKROIPUINAK
Idoia Torrealdai
ELKAR

Idoia Torregarai kazetari eta umoregilearen lehenengo liburua, ipuin labur-laburrez osatua, eta Zaldieroak ilustratua. Aforismorik txistera, zorroztasuna, irudimena, ezustea eta umorea dira istorio txiki baina piperdun hauen ezaugarriak.




### GIRL'S LAST TOUR 3
Tsukumizu
KABE

Egunak joan, egunak etorri, aurrera darrai Chito eta Yuriren bidaiak. Eraikin abandonatuen artean, beren urrats erraziek esperientzia batetik bestera daramatzate bi neskak.




### WANTED. ERRETRATU ODOLTSUA
David Boriau/ Steven Dhont
HARRIET

Colorado, 1869. Cowboy talde batek cheyene tribu bat txikitu berri du; soilik Dull gazteak lortu du sarraskitik ihes egitea. Argazkilari ibiltari batek, Oscar Carjatek, mutila hartu eta elkarrekin Mendebaldea zeharkatzen hasi dira gurdi batean.




### AIREMORTUAK
Gorka Salces
BALEA ZURIA

Hainbat literatur sari jaso eta gero, *Iraganaren izterrak* liburuarekin DK Poesia Saria irabazi zuen Gorka Salcesek 2018an. Sei urte geroago dator bigarrena, *Airemortuak*. Orduko lanaren ertzak finduz eta helduago datorkigu.

araba euskaraz '24
mugaezin
HERRI URRATS
ORTZADARRA 2024
txonbo!
ibilaldia 2024 Getxo




### GIZADIAREN OREN GORENAK
Stefan Zweig
KATAKRAK

Artista bakar bat ere ez da eguneko hogeita lau orduetan etenik gabe artista. Lortzen duen funtsezko guztia, iraunkor guztia, ohiz kanpoko inspirazio-une bakanetan gertatzen da beti.




### HAN EGON ZEN. JOSE LUIS ELKORO, BIZITZA BETE BAT
Mikel Zubimendi
TXALAPARTA

Batzuetan, pertsona baten biografiaren bidez azal liteke herri baten historia garaikidea, pertsona horren bizitzak hainbat mugarrirekin bat egiten baitu. Jose Luis Elkororen ibilbidean halaxe gertatzen da.




### PALESTINAREN OKUPAZIOAZ ETA KOLONIZAZIOAZ
Perry Anderson
KATAKRAK

Palestinarren patua maskaratu asmoz, garaileek eufemismo sorta berezi bat asmatu zuten. Garbiketa ez zegokien soilik pertsonei. Lurrak eta jabetzak eskuratu zituzten, artean kolonialismoaren historian ezein kolonizaziok erdietsi gabeko abiaduran eta eskalan.




### TXORIA HODEI ARTEAN
Urtzi Urkizu
BERRIA/ELKAR/JAKIN

ETBk 40 urte ditu, ondo beteak, gainera. Liburu honetan, lau hamarkadako ibilbide horren ikuspegi zabala eskaintzen digu Urtzi Urkizu kazetariak: telebista ezerezetik sortu zen "garai heroikoetatik" gaur egungo erronketara, adimen artifiziala kasu.




### GUDARI. ELI GALLASTEGIREN LORRATZA
Nerea Azurmendi
TXALAPARTA

Hil zenetik 50 urte igaro berri, Gallastegiren ibilbidea berregin eta 1936.aren aurreko nazionalismo erradikalaren eta iragan mendeko 50-60ko hamarkadetan ernamuintzen hasi zen ezker abertzalearen arteko loturak aletu ditu egileak.




### LEITZAKO DORREAK. NAFARROAKO ISTORIO BAT ZURGIN BATEK KONTATUA
Iñaki Sagredo
PAMIELA

Lan honetan, Leitzan Erdi Aroan izan ziren bi dorreen historia bildu du Iñaki Sagredok. Garai hartako dokumentazioa oinarri, dorreak eraiki zituen Sancho de Beorieta obra maisuaren ahotik kontatutako narrazio bikaina osatu du.




### AGOTAK. BERDINTASUNAREN ALDE BORROKALARI
Xabier Santxotena / Josu Legarreta
EREIN

Agoteen historia antropologiaren ikuspegitik azaldu izan da, gehienbat. Idazlan honek, ordea, Erroma, Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniako politikarien handinahikeria zapaltzaileen aurka egin ziren herri aldarrikapenen artean jarri ditu.




### DESAGERTUTAKO BILBO
Iñigo Lopez Simon
EFADOS

Iraultza industrialak errotik aldarazi zuen Bilbo, eta betiko. Liburu honetako argazkien bidez, aldaketa horren nondik norakoak ikusiko ditugu. Sekula itzuliko ez den Bilbora goaz.



# NOVEDADES
## *libros*




**BAUMGARTNER**
Paul Auster
SEIX BARRAL

Baumgartner es un eminente escritor y profesor universitario, tan excéntrico como tierno, que hace nueve años perdió a su mujer. Su vida estuvo definida por el amor profundo y duradero que sentía hacia Anna.




**EN AGOSTO NOS VEMOS**
Gabriel García Márquez
RANDOM HOUSE

Cada mes de agosto Ana Magdalena Bach toma el transbordador hasta la isla donde está enterrada su madre para visitar la tumba en la que yace. Esas visitas acaban suponiendo una irresistible invitación a convertirse en una persona distinta durante una noche al año.




**MUJERES QUE ARDEN**
María Esclapez
BEDICIONES

En una intriga a dos tiempos descubriremos que Eleonor y la autora del diario deberán luchar contra un mismo enemigo: aquellos que quieren silenciar la violencia y que están dispuestos a todo para conseguirlo.




**LA CIUDAD Y SUS MUROS INCIERTOS**
Haruki Murakami
TUSQUETS

Poco se imagina el joven protagonista de esta novela que la chica de la que se ha enamorado está a punto de desaparecer de su vida. Se han conocido en un concurso entre estudiantes de diferentes institutos, y no pueden verse muy a menudo.




**LA DISTANCIA QUE NOS SEPARA**
Maggie O'Farrell
LIBROS DEL ASTEROIDE

Paseando por Londres, Stella se cruza con un hombre que la devuelve a un momento insoportable de su pasado. Este encuentro la perturba tanto que deja inmediatamente el trabajo y, sin avisar a nadie, se instala en un recóndito lugar de Escocia.




**LA LUZ DEL NORTE**
Hideo Yokoyama
SALAMANDRA

Tras el éxito de *Seis cuatro*, Hideo Yokoyama vuelve a cautivarnos con *La luz del norte*, una novela de enigma bellamente escrita, colmada de suspense y construida como un rompecabezas.




**EL CENTRO**
Ayesha Manazir Siddiqi
AMOK

El Centro, un programa de élite al que sólo se puede acceder por invitación, garantiza la fluidez absoluta en cualquier idioma en sólo diez días.




**PURASANGRE**
Noelia Lorenzo Pino
PLAZA&JANÉS

Un mensaje misterioso enviado a la Ertzaintza y una desaparición repentina en Irun reúnen a la oficial Lur de las Heras y a la agente Maddi Blasco en un enigmático e inquietante caso.




**EL VALLE DEL HIERRO**
Ane Odriozola
N DE NOVELA

Una noche de 1577, el carbonero Domingo Harria sale hacia la ferrería de Mirandaola, donde sus dueños le esperan. Asencia, su mujer, descubre a la mañana siguiente que Domingo no ha regresado a casa, y da la voz de alarma.




**HIJAS DE LA ESPERANZA 3. EL CAFÉ DEL ÁNGEL**
Anne Jacobs
PLAZA&JANES

La autora de *La Villa de las Telas* vuelve a emocionar con el tercer volumen de su exitosa saga familiar ambientada en un evocador café alemán de la posguerra.






**LA SOMBRA DE LOS SUEÑOS**
Gonzalo Giner
PLANETA

Hay sueños que es mejor no cumplir. Una historia repleta de acción, aventura y conspiraciones en torno a la figura histórica de Saladino.




**LA MUJER NO TIENE NOMBRE**
Duygu Asena
RBA

Considerada el primer manifiesto feminista de Turquía, *La mujer no tiene nombre* evidenció la lucha de las mujeres turcas por escribir su propia historia. A través de sus páginas acompañamos a su protagonista desde su infancia hasta la madurez.




**TODOS SABRÁN MI NOMBRE**
Tony Gratacós
DESTINO

Canarias, 1525. El joven cronista Diego de Soto, desilusionado con las cloacas de poder del incipiente Imperio español, decide embarcarse en una expedición y dejar atrás su vida en la corte.




**EL FOTÓGRAFO DE AUSCHWITZ**
Luca Crippa / Maurizio Onnis
ESPASA

Polonia, 1939. Cuando el fotógrafo profesional Wilhelm Brasse es deportado a Auschwitz-Birkenau, se ve forzado a tomar "fotografías de identidad" de los prisioneros cuando llegan en tren.




**NOVIA**
Ali Hazelwood
FAERIS

Una peligrosa alianza entre una novia vampira y un licántropo alfa da lugar a una historia de amor tan intensa como para querer hincarle el diente.




**PERROS**
Keum Suk Gendry-Kim
RESERVOIR BOOKS

Un cómic íntimo y revelador sobre la esencia de la familia y la necesidad de crear vínculos, por la multigalardonada autora de *Hierba* y *La espera*. Imprescindible para los amantes de los perros.




**NASTI DE PLASTI**
Loa Miller
BOLTMUSIC

Chino, un vallecano cincuentón que dice haberse inventado la mítica frase de "Nasti de plasti", nacido en los 70, criado en los 80 y crecido en los 90, te cuenta las vivencias más importantes de su época egebera.




**LA TRIPLE PRESENCIA**
Marina Sagastizabal
TXALAPARTA

Este breve ensayo analiza las consecuencias de organizar la vida según la lógica del capital y el impacto que tiene la amplia carga de trabajo que sostienen las mujeres en su implicación en la esfera política.




**LOS OJOS DE MONA**
Thomas Schlesser
LUMEN

Un acontecimiento editorial en veintiocho países: una apasionante y conmovedora novela filosófica que propone una iniciación a la belleza y a la vida en 52 obras maestras.




**CUENTOS VERDADEROS**
Rosa Montero
ALFAGUARA

*Cuentos verdaderos* reúne las crónicas y los reportajes que Rosa Montero, una de las voces más importantes del periodismo y la literatura de las últimas décadas, publicó en El País durante el periodo 1978-1988.




**EL JUEGO COMO HERRAMIENTA DE APRENDIZAJE**
Juan Carlos Ruiz/Pedro Giraldo
AULA EN JUEGO

En este libro ofrecemos una visión práctica de cómo el juego puede ser utilizado en el día a día del docente y de los estudiantes, incluyéndolo en el proceso de enseñanza y aprendizaje.




**DIARIO DE UNA RUPTURA**
Silvia Congost
AGUILAR

La gran experta en relaciones amorosas y exitosa psicóloga Silvia Congost, nos da en este libro las claves para superar la parte del amor que más cuesta aceptar: su final.



# NOBEDADEAK
## *musika*




### LORATEGI IZOZTUAN HEZUR HUTS BILAKATU ARTE
Lisabo
BIDEHUTS
DESKONTUA %10

Zazpi doinuko disko hau 2022 eta 2023 bitartean grabatu du Lisabok, alegia, Maite Arroitajauregi, Sergio Gonzalez, Karlos Osinaga, Xabi Zabala, Aida Torres, Martxel Mariskal, Eneko Aranzasti, Javi Manterola, Borja Tobal eta Txaranga Urretabizkaiak.



### LURRALDE KOMANTXE
La Basu
LA BASU
DESKONTUA %10

*Lurralde Komantxe* La Basu-ren laugarren disko luzea da. Disko hau kolaborazioz beteta dago eta rap, drill, dancehall eta drumb & bass musika estiloak nahasten ditu. Letra zorrotzak eta soinu dantzagarriak.




### DESTROY THE SILENCE
Etsaiak Eroak
BRIXTON
DESKONTUA %10

Etsaiak Eroak taldeak hamar kantuz osatutako diskoa kaleratu du. Abestiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi dituzte eta doinuak "betiko hardcorearen" ildotik landu dituzte.




### MUCHO ASCO (CASI) TODO
Lendakaris Muertos
ALTAFONTE

Lendakaris Muertos están de vuelta con una nueva colección de canciones-colleja, entre ellas una que cuenta con un récord mundial, la canción más corta de la historia.



### ALDATU AURRETIK
Bulego
ALTAFONTE

Bulegoren estudioko bigarren lan luzea aldaketei buruz hitz egiten duen disko kontzeptual bat da. Inoiz baino poperoago datorren bilduma honek hamar abesti ditu.




### LAGUN BATEK ESAN DIT
Jabier Muguruza
JABIER MUGURUZA
DESKONTUA %10

Jabier Muguruzak 32 abesti konposatu ditu Iñaki Irazuren testuak musikatzeko. Ez da batere ohikoa musikari batek idazle baten hainbeste olerki kantu bihurtzea.




### VISIONS
Norah Jones
UNIVERSAL

*Visions* es un conjunto vibrante y alegre de doce canciones en el que Jones canta sobre sentirse libre, querer bailar, hacer las cosas bien y aceptar lo que trae la vida.




### BAKARKA II
Ruper Ordorika
ELKAR
DESKONTUA %10

Oñatiar musikariak bere ibilbideko kantu ezagun gehiago ekarri ditu formatu soil honetara: bere ahotsa eta gitarra besterik ez. Biluztasun horretatik aspaldiko doinuak zaharberrituta ageri zaizkigu.



### CERODENERO
Izaro
ALTAFONTE

Hamabi kantuz ondu du Izarok bere disko berria, folk, pop eta musika elektronikoaren bideak joratuz eta elkar uztartuz.

## DVD-AK




### WISH, EL PODER DE LOS DESEOS
Chris Buck
DIVISA

En esta comedia musical de animación, Asha, una idealista e ingeniosa joven del reino de Rosas, pide un deseo tan poderoso que es respondido por una fuerza cósmica: una pequeña bola de energía ilimitada llamada Star.






+5




## EXIT KIDS. ACERTIJOS EN LA JUNGLA

DEVIR

¡Acabáis de descubrir una isla desconocida y habéis encontrado nueve misteriosos cofres! Para abrirlos, deberéis resolver los acertijos que han preparado los animales de la selva.

+6




## CLICK CLACK CUBE

CAYRO

Mahai-jolas honetan zure trebezia erakutsi beharko duzu, erronkak gainditzeko piezak behar den moduan kokatuz.

+6




## ISLA A LA VISTA

MERCURIO

Juego de mesa cooperativo para niños que os llevará hasta las paradisíacas islas del Caribe, lugar de donde parten innumerables historias de piratas y de tesoros escondidos...

+7




## EXPLODING KITTENS: EL BIEN CONTRA EL MAL

ASMODEE

Exploding Kittens es una versión altamente estratégica de la ruleta rusa, mejorada con gatitos explosivos. Los jugadores roban cartas hasta que alguno roba un *exploding kitten*…

+7




## POLE POSITION

SMART GAMES

Umeentzako mahai jolas honetan lasterketa-auto magnetiko hauen leku zehatza aurkitu eta helmugara zein iristen den jakin behar duzu.

+8




## DESPISTADOS EN LA GRANJA

ROCKET LEMON GAMES

Juego de cartas de observación y rapidez visual con unos simpáticos animales de granja como protagonistas.

+8




## TAKE IT EASY!

ZACATRUS

Jolas abstraktu kitzikagarri honetan hodiak eraiki behar dira. Banaka edo jolaskideekin jolas daiteke, gehienez sei lagun.



elkar

# 16. ilustrazio eta ipuin lehiaketa

Parte hartu!

+ info:
https://labur.eus/Ilustraziolehiaketa



antolatzailea: elkar fundazioa

babesleak: Irrien Lagunak, Laboral kutxa

laguntzaileak: Ttarttalo, Katxiporreta, Djeco, Devir, Rúdilo, Madnesstoys, Tranjis Games, mercurio, Ludattica, HABA